



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abuztuaren 25a

94. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00134. Galdera, Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokari buruzko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00135. Galdera, Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Planean abiarazi gabeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00136. Galdera, zenbait ganadu-motak eta abeltzaintza-ustiategik 1990etik 2024ra bitarte izandako bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00137. Galdera, Nekazaritza-jardunbide onen Kodea behar bezala betetzen ote den kontrolatze aldera abeltzaintza-ustiategietan ikuskapenak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00138. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetako langileen egonkortze-prozesuen amaierari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00139. Galdera, Nafarroan errefuxiatuak hartzeko protokolo integrala eguneratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00140. Galdera, Sodenaren, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren eta Albyn Medicalen arteko akordioaren arduradunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00141. Galdera, Burlatako Hilarión Eslava HLHIPn haur-hezkuntzako lehen zikloa ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00142. Galdera, enpresetako berdintasuneko agentearen figuraren profilari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00143. Galdera, “Baluarte” Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioaren fatxadan olanak jarzea baimentzeko prozedurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/POR-00144. Galdera, Valle de Odieta SCLk planteatutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-25/PES-00145. Galdera, Artaxoako Ecofert Sansoain SL eta Tuterako Oleofat Trader taldearen planteatutako lixibiatuen espedienteak zertan diren jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-25/PES-00146. Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitaleko medikuen datuen gaineko desadostasunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

- 11-25/PES-00147. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N 121 A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 11-25/PES-00148. Galdera, autobian bidesariak jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-25/PES-00149. Galdera, Maristetan etxebizitzak eraikitzeari dagokionez Arrasate talde sustatzailearen arduradunekin egindako bilereori buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-25/PES-00150. Galdera, Cintruénigoko La Paz DBHIren eraikina handitzeari eta LHko ikasketak paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 11-25/PES-00151. Galdera, animaliak hartzeko zentrozen lurralde- eta eskumen-planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-25/PES-00152. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta EIBZren kokapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 11-25/PES-00153. Galdera, zerbitzuburuak eta atalburuak izendatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- 11-25/PES-00154. Galdera, Nafarroako etxebizitza-jabeen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- 11-25/PES-00155. Galdera, etxebizitzaren jabe diren pertsona fisiko eta juridikoen eta etxebizitzaren alokairuagatiko errentak jaso zituztenen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00134. Galdera, Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokari buruzko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokari buruzko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 21eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariori atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00134 informazio-eskaera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Bete al da Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokari buruzko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legearen 9. artikuluan ezarritakoa?

Artikulu horretan aipatzen diren entitateek zenbateraino taxutu dituzte arrazakeriaren aurka borrokatzeko planak edo jarduera-protokoloak etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazio-kasuetan?

Aipatu 13/2023 Foru Legearen 9. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana egingo du, ardatz izango dena arlo honetako jarduketan (foru legeak 1. artikuluan aipatutako etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazioa prebenitzeko, eragozteko eta konpon-

tzeko politika publikoak) eta bost urteko iraupena izango duena (ondoren berraztertu eta berritu egin beharko da). Ildo horretan, 13/2023 Foru Legea argitaratu aurretik onartutako Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana (2021-2026) indarrean da oraindik.

Foru legean eta planean bertan ezarritakoaren arabera, jarraipena arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan lan egiten duten erakundeen partaidetzarekin egiten ari da, bai eta gutxiengo etnikoetako kideen partaidetzarekin ere.

Planaren exekuzioa gidatzeko zenbait urteko plan operatibo daude ezarrita, inplikaturako departamentu edo erakunde bakoitzak zer ekintza garatu behar dituen zehazten dituztenak. Urteko plan operatiboaren edukia eta bakoitzaren exekuzioa hiru harreman-espaziok jarraitu eta partekatzen dute: bat, egiten ari den lana ezagutzeko interesa duten herritar guztiei irekita dago, norberaren ize-nean edo migratzaileen, auzotarren edo gutxiengo etnikoen elkarleen ordezkari gisa parte hartu dezaketena; bigarrena, departamentu eta administrazio arteko harremanei dagokiena, administrazio publikoetako (Nafarroako Gobernu eta toki-erakundeak) eta erakunde sozialetako teknikari zuzendutakoa; eta, azkena, harreman instituzionalena, inplikaturako Nafarroako Gobernu departamentuetako zuzendaritza nagusiei zuzendutakoa. Jarraipenaren emaitza urteko jarraipen-txostenetan jasota geratzen da.

Behin Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Planaren exekuzio aldia amaitutakoan, planaren ebaluazioa egitea aurreikusita dago.

Bestalde, 13/2023 Foru Legearen 9. artikulua-ren 2. apartatuak zehazten duenez, Nafarroako Gobernuak behar den bultzada eta laguntza tekniko eta ekonomiko emanen dizkie toki-erakun-

deei, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko neurriak eta planak garatu ditzaten, arrazakeriaren agerpen espezifikoerantzuteko beren eskumenen esparruan.

Ildo horretan, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak dirulaguntzen deialdiak sustatu ditu, helburu hartuta toki-erakundeek teknikariak kontrata ditzatela kulturen arteko bizikidetzak sustatzeko eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko. Helburu horrekin, urteko deialdi bat argitaratu zen 2023an; aldiz, teknikariok tokian toki egiten duten lanari egonkortasun handiagoa emateko beharra zegoela iritzita, bai eta aurrekontua areagotzea beharrezkoa zela ere, 2024an zenbait urtetarako bi deialdi argitaratu ziren, 2024-2026 aldirako zehazki. Hain justu, honako hauek dira aipatutako laguntza deialdiak:

- 86E/2022 Foru Agindua, azaroaren 18koa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdi bat onesten baita, tramitazio aurreratuaren bidez, toki-erakundeek kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako teknikari bat finantza dezaten 2023an.

- 61E/2023 Foru Agindua, maiatzaren 10ekoa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita toki-erakundeek dirulaguntzak emateko deialdi bat, kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako teknikariak finantzatzeko, 2023rako.

- 132E/2023 Foru Agindua, azaroaren 24koa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita honako deialdi hau: "Toki-erakundeek dirulaguntzak emateko urte anitzeko deialdia, kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako teknikariak finantzatzeko".

- 81E/2024 Ebazpena, ekainaren 9koa, Migrazio Politiketako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita honako deialdi hau: "Toki-erakundeek dirulaguntzak emateko urte anitzeko deialdia, kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako teknikariak finantzatzeko, 2024ko bigarren deialdia".

Uneotan, honakoak dira kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako teknikariak dituzten toki-erakundeak:

- Fiteroko Udala.
- Iruñeko Udala.
- Burlatako Udala.

- Erriberriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Uxue, San Martin Unx, Erriberri, Beire, Pitillas, Murillo el Cuende, Traibuenas, Arrada eta Caparroso.

- Cintruénigoko Udala.

- Artaxoako Gizarte Zerbitzuak: Larraga, Miranda Arga eta Berbintzana.

- Leringo Udala.

- Berriozarko Udala.

- Tafallako Udala.

- Zarrakazteluko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Murillo el Fruto, Santakara, Mérida eta Figarol.

- Elizagorriko Mankomunitatea: Lodosa, Mendabia, Sartaguda eta Sesma.

- Eguesibarko Udala: Altzuza, Ardatz, Azpa, Badostain, Egues, Elcano, Elia, Ibiriku, Olatz, Sagaseta, Ustarrotz, Gorraitz, Sarriguren, Amokain, Etxalatz, Egulbati, Elizmendi eta Erantsus.

- Sakanako Mankomunitatea (Anitzartean): Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakai-ku, Etxarri Aranatz [Lizarragabengoa], Arbizu, Ergoiena [Lizarraga, Unanu, Dorrao], Lakuntza, Arruazu, Uharte Arakil, Irañeta, Arakil [Ihabar, Murgindueta, Hiriberri, Egiarreta, Satrustegi, Zuhatsu, Aizkorbe, Errotz, Izurdiaga, Urritzola, Etxarren, Etxeberri, Ekai] eta Iruztzun.

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiko Ayllu-Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Zerbitzua kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako teknikarien sarea bultzatzen ari da, helburu hartuta era koordinatuan eta elkarlanean oinarrituta kulturen arteko bizikidetzak eta herritar guztien inklusioa lortzea foru-komunitateko eskualde guztietan, esku-hartze komunitarioan oinarritutako jarduketan eskutik.

Bestalde, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak toki-erakundeek kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako proiektuak bultzatzeko beharra ere aurreikusi du, baita egitasmoak aurrera eramateko finantzaketa beharra ere. Ildo horretan, zenbait laguntza onartu dira kulturen arteko bizikidetzako diagnostikoak finantzatzeko, baita neurriak planifikatzeko eta martxan jartzeko ere. Migrazioekin, harrera-eskubidearekin, eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokaekin lotuta bizikidetzak sustatzeko eta sensibilizazioa bultzatzeko ekintza puntualak egitea ere aurreiku-

si da. Honako deialdien bidez zehazki:

- 5E/2022 Foru Agindua, otsailaren 11koa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana. Honen bidez onesten da toki erakundee-tarako eta irabazi-asmorik gabeko gizarte ekime-neko entitateetarako dirulaguntzen deialdia, 2022. urterako, kulturen arteko bizikidetzaren sustatzeko eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuetarako.

- 86E/2022 Foru Agindua, azaroaren 18koa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdi bat onesten baita, tramitazio aurreratuaren bidez, toki-erakundeek kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borroka-rako teknikari bat finantza dezaten 2023an.

- 108E/2024 Ebazpena, uztailaren 12koa, Migrazio Politiketako zuzendari nagusiak emana, deialdi hau onesten duena: toki erakundeentzako eta irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateentzako dirulaguntzak, 2024. urterako, kulturen arteko bizikidetzaren eta arrazakeriaren nahiz xenofobiaren aurkako borroka sustatzeko proiektuetarako.

Deialdiok 13/2023 Foru Legearen 9.3 artikuluan aurreikusitakoari ere erantzuten diote, erakunde sozialei ere zuzenduta baitaude.

Bestalde, 13/2023 Foru Legearen 9.4 artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak zainduko du administrazio korporatiboek, enpresa-erakundeek, sindikatuek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek, partzuergoek eta zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten era guztietako entitateek arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako neurri espezifikoa edo protokoloak izatea.

Ildo horretan, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Zerbitzuak eta Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiko langileek departamentu arteko koordinazioko zenbait espaziotan parte hartu dute araudia eta prozedurak aztertze-ko arrazarekin, jatorriko etnikoarekin edo migratzaileekin lotutako eduki diskriminatzaileak identifikatzeko eta ezabatzeko. Besteak beste, Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa, Nafarroako Osasun Plana, Nafarroan familia, haurtzarora eta nerabezarora laguntzeko III. Plan Integrala (2017-2023), Despopulazioaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Estrategia eta Adingabe migratzaileak hartzeko ekintzen koordinazioko Protokoloa aztertu dituzte.

Zuzendaritza Nagusia plan, estrategia eta prozedura berriak garatzeko elkarlanean ere ari da eskatzen duten departamentu guztiekin, helburu

hartuta departamentuotan arrazakeriaren aurkako eta kulturartekotasunaren aldeko ikuspegia txertatzea (espaziotan erakunde sozialek, enpresari-erakundeek, administrazio korporatiboek eta abarrek ere parte hartzen dute): Gizarteratze Plan Estrategikoa diseinatzen ari da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa diagnostikoaren fasean da, Nafarroan familia, haurtzarora eta nerabezarora laguntzeko Plan Integrala egiten ari da uneotan...

Era berean, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Zerbitzua zenbait eremutan elkarlanean aritu da erakunde sozialekin eta administrazio publikoekin:

- Arrazakeria, xenofobia eta bestelako intolerantzia/gorrito egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta jarduteko Ilundain Fundazioaren protokoloa.

- Valtierra Udalak jaiotzagatiko ematen dituen laguntzen deialdiaren oinarrien azterketa, zerbitzuak berak jakinarazitako intzidentziaren harira.

- Anonimo bihurtutako datuak lagatzea infrasa-laketaren auziari buruzko master amaierako lan baterako (Nafarroako Guardia Zibila).

- Anonimo bihurtutako datuak lagatzea Nafarroako Gobernuaren Analisi eta Prospekzio Bulegoari, enpleguaren arloko arrazagatiko eta etniagatiko diskriminazioarekin lotuta.

Era berean, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Zerbitzuak zabalkunde lana egiten du irabazi-asmorik gabeko erakunde sozialekin eta administrazio publikoaren zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeekin, bileren eta lan mahaien bitartez arrazakeriaren eta xenofobiaren oinarrian dauden arrazoiei heltzeko. Arrazakeriaren aurkako neurri espezifiko gisa, aipatu zerbitzua Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko zerbitzu espezializatu gisa identifika dezaten ere egiten du lan. Horretarako, zerbitzuaren funtzionamenduari, protokoloarekin eta metodologiarekin lotutako gaiak heldzen diote, eta zerbitzura eginkizunak nola bideratu azaltzen dute.

Azkenik, 13/2023 Foru Legearen 9.5 artikulua, enpresetan eta erakundeetan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko neurriak eta protokoloak lantzea eta sustatzea aurreikusten du, eta, horretarako, Nafarroako Gobernuaren laguntza eta aholkularitza jasoko dutela ezartzen du.

Ildo horretan, Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurka Borrokarako Nafarroako Planaren 2024ko urteko plan operatiboan, honako neurria sartu zen: biktimei akonpainamendua eta aholkularitza ematen

dieten hirugarren sektoreko erakundeei laguntza ematea, sindikatuei eta antolakundeei, bai eta salaketa, deribazio eta arreta lanak egiten dituztenei ere. Helburu horrekin, migratzaileei arreta emateko zerbitzu espezifikoak zituzten sindikatuak eta erakundeak identifikatzeko ekintza jarri zen martxan:

- UGT: sindikatuak migratzaileei informazioa eta aholkularitza emateko zentroak zituen 2023 arte (Gizarteratzeko eta Laguntza Humanitarioko Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundutako proiektua, Europako Gizarte Funtsak kofinantzatutakoa), aldiz, urte horretatik aurrera zerbitzua bertan behera geratu zen.

- CCOO: gazteriari, lan munduko errealitate berriei, ingurumenari, mugikortasun jasangarriari eta migrazio politikiei zuzendutako atala du.

- ELA: immigrazioari zuzendutako atal bat du sindikatuaren webgunean, albisteak, agiriak, kanpainak eta intereseko bestelako informazioak jasotzen dituena.

- LAB: Idazkaritza Antirrazista du 2022tik, Plan Estrategiko Antirrazista bat du, arrazakeriarekin lotutako albiste espezifikoaren atal bat du, eta, gainera, lan eskubideetan eta antolakuntzan prestakuntza jasotzeko ekintzak eskaintzen ditu.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00135. Galdera, Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Planean abiarazi gabeko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Planean abiarazi gabeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 21eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00135 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 Planeko zer neurri ez da oraindik abiarazi? Zergatik? Adierazi zergatia kasuz kasu.

Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Planaren oinarritzko premisa da bide orri espezifiko bat osatu eta zehaztu nahi duela Nafarroan bizikidetzari arrazakeriaren ikuspegi batekin heltzeko, gakoak eskainiz arrazializazio prozesuen, arrazakeriaren, xenofobiaren eta lotutako bestelako diskriminazio moten analisi kritikoa egiteko.

Helburua arrazakeriaren eta xenofobiaren adierazpen oro desagerraraztea da, pertsonarekiko gorrotoa edo bereizkeria errespetuzko jarrera orokorrekarekin eta kulturarteko balioen sustapenarekin ordeztuz. Helburu horri heltzeko, planak helburu espezifikoagoak garatzen ditu, helburu operatibok, zenbait neurri, programa eta ekintzetan zehazten direnak. Helburuok planari antolaketa egitura bat eskaintzen dioten lau ildo estrategikotan kokatuta geratzen dira: koordinazioa, prebentzioa, babesa eta erreparazioa.

Planean ezarritako helburu espezifikoaren garapenarekin bat, egindako informazio-eskaerari erantzunez, jarraian oraindik ere martxan jarri ez diren neurriak zehazten dira:

1. Erakunde desberdinen eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan parte hartzen duten eragileen arteko koordinazioa hobetzea. Laneko, komunikazioko eta aliantza eraginkorren garapeneko esparru partekatu batean aurrera egitea.

Apartatu honetan, A1¹ neurria planean ezarri bezala garatu ez bada ere, iaz, 2024an, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nafarroako Kontseilua eratu zen, eta, bertan, Nafarroako Gobernuko zenbait departamentu daude ordezkaturik. Ordezkaritzetako bat Barne Zuzendaritza Nagusiak, Udala eta Kontzejuen Federazioak, Arartekoak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, erakunde sozialek, migratzaileen eta arrazializatutako pertsonen elkar-teeak, eta migratzaileen foroak betetzen dute.

Bestalde, 2023. urtetik, harreman-espazio bat dago irekita Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren (Ayllu zerbitzuaren teknikariak eta Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Zerbitzuaren koordinatzailea) eta Nafarroan jarduten duten polizien artean (Foruzaingoa, Polizia Nazionala, Guardia Zibila eta Iruñeko Udaltzaingoa), helburu hartuta Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Planean sartutako neurrien garapenari heltzea. Gainera, alde biko bilerak izaten dira polizia kidego bakoitzarekin. Ekintza hori (37.2) jasotzen da A37² neurrian, baina jorratzen ari garen neurri honi ere erantzuten dio. Erakunde sozialen eta indar polizialen arteko lotura lanak egiten dituenak, batzuen eta besteen proposamenak/erantzunak bideratzen dituenak, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia da.

2. Pertsona arrazializatuek/etnifikatuek edo bereizkeria intersektionalaren biktimek jasaten dituzten bereizkeria egoerei buruzko ezagutza eta prestakuntza areagotzea. Instituzio publikoei eta erakunde pribatuei zuzendutako prestakuntza.

Aurreko urteetan martxan jarri ez den A7³ neurria –egindako 2022-2026 aldiko egutegian ez zuen ezarrita abian jartzeko urte zehatzik–, 2026an garatuko da azkenean. Neurriak era progresiboan jartzen dira martxan Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren teknikari taldeak urteko ekintzak garatzeko duen gaitasunaren arabera, eta zer ekintza lehenetsi behar diren teknikari taldeak berak adosten du.

Aurreko urteetan martxan jarri ez den A8⁴ neurria –egindako 2022-2026 aldiko egutegian ez zuen ezarrita abian jartzeko urte zehatzik–, 2025ean jarriko da abian azkenean, aurtengo urteko plan operatiboan ezarritakoaren arabera:

“8.1. Sindikatuei, hirugarren sektoreari, enpresariei/enplegatzaileei eta profesionalen erakunde-
ei zuzendutako arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokari buruzko prestakuntzako ekintzen diseinua eta onarpena.

8.2. Sindikatuei, hirugarren sektoreari, enpresariei/enplegatzaileei eta profesionalen erakunde-
ei zuzendutako arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokari buruzko prestakuntza garatzea”.

3. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan zerbitzu eta baliabide publikoen hedapena eta sustapena indartzea. Informazio argi, gardena eta bateraturako sarbidea bermatzea.

Apartatu honi dagokionez, adierazi beharra dago A12⁵ neurrian jasotako gida informatiboa egin ez bada ere, Nafarroako Gobernuaren <https://www.navarra.es/eu/migrazioak> web orrian, besteak beste, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko zerbitzu eta baliabide publikoak jasota daudela.

4. Arrazakeriaren aurkako zaintza areagotzea: jarrera eta diskurtso arrazista edo xenofoboaren detekzio goiztiarra eta prebentzioa errazten duten monitorizazio, segimendu eta kontrol mekanismoak ezartzea.

¹ A1. Plana koordinatzeko batzorde iraunkor bat sortzea eta abian jartzea. Batzorde horrek osatura paritarioa izan behar du, eta honako hauek parte hartuko dute: administrazio publikoak, polizia eta justizia kidegoak, hirugarren sektoreko ordezkariak eta komunitate arrazializatu/etnifikatuek.

² A37. Foruzaingoa berrantolatzea delituen unitatearen sortzea.

³ A7. Prestakuntza espezializatua, arreta zerbitzu orokorretako langileak delituen ondorioz izaten ahal diren salaketan aurrean erantzuteko gaitzeko, behar bezala erregistra eta behar bezala tramita daitezten.

⁴ A8. Arrazakeria eta xenofobiagatik delituak eta gertakariak hobeto prebenitu eta tratatzeko genero ikuspegia erabiltzen duten prestakuntza ikastaroak diseinatu eta ematea, eta materialak prestatzea, sindikatuei, hirugarren sektoreari, enpresaburuei/enplegatzaileei eta erakunde profesionalen zuzendutako.

⁵ A12. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako Nafarroako zerbitzu, baliabide eta jarduketako protokoloak bilduko dituen webgune bat eta informazio gidaliburu bat prestatzea. Planaren xede diren kolektibo eta komunitateak gehien ordezkatzeko dituzten hizkuntzetara itzultzea.

Plan honen jarraipenean ez da A15⁶ neurriaren gaineko informaziorik jaso. Aldiz, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak SOS Arrazakeriarekin indarrean dituen hitzarmenetan Nafarroan arrazakeriari buruzko urteroko txostena egitea aurreikusten da; are, urtean zehar elkarrekin koordinatuta aritzen dira, jarrera eta jokabide arrazisten eta xenofoboen bilakaeraren informazioa partekatuzko, izandako aldaketen berri izateko, bai eta detektatutako gertakarien eta gorroto delituen berri izateko ere.

Ez da aurretiazko ebaluazio txostenik egin A21⁷ neurriarekin lotuta, aldiz, Nafarroako Gobernuako departamentuek Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiari eskatu izan diote arrazakeriaren aurkako ikuspegia eskaintzeko garapen legegileko prozesuetan edo plangintza estrategikoen garapenean.

5. Gorroto diskurtsoen aurka egitea hedabideetan eta sare sozialetan. Ezagutzea, monitorizatzea eta erantzutea, mezu positiboak zabaltzeko eta ez gorroto diskurtso arrazisten, xenofoben eta arrazartekoen aurrean erreakzionatzeko mezuak.

Apartatu honetan, planteatutako neurri guztiak martxan jarri dira dagoeneko.

6. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako sentsibilizazioa eta kanpainen diseinua sustatzea.

Apartatu honetan, planteatutako neurri guztiak martxan jarri dira dagoeneko.

7. Arrazan oinarritutako diskriminazioari eta xenofobiari aurre egiteko prebentziozko neurriak hartzea Administrazio Publikoak.

2022an abian jartzea aurreikusita zegoen A27⁸ neurria 2025eko urteko plan operatiboan sartu da azkenean: "27.1 Etxebizitzaren Legearen barruan diskriminazioari buruzko apartatu bat sartzea, jokabide diskriminatzaileak zigortzea ahalbidetuko duena".

Plan honen jarraipenean ez da A33⁹ neurriaren gaineko informaziorik jaso. Aldiz, Kulturarteko

Bizikidetzaren Estrategiaren garapenean barruan jarri da abian, eta informazioa ere bildu da, zehazki, honako neurri honen barruan: 3. neurria. Kulturarteko Bizikidetzarako eta Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako borrokarako teknikariak.

8. Arreta integraleko zerbitzua eskaintzea pertsona arrazializatu eta/edo arrazagatiko eta jatorri etniko/migratzailegatiko bereizkeria eta bereizkeria interseksionala jasaten dutenei, aholkularitzarako, laguntzarako, akonpainamendurako eta bitartekaritzarako baliabideak eskainiz.

Apartatu honetan, planteatutako neurri guztiak martxan jarri dira dagoeneko. Hori bai, A40¹⁰ neurriari dagokionez, ekintzari heltzeko harreman-espazioak ezarri badira ere inplikaturako eragileekin, ez da lortu oraindik protokoloak adostea. Deribaziorako eta elkarlanerako konpromisoa behintzat lortu da dagoeneko.

9. Justizia errestauratiboa sustatzea, baita biktimagileak birgaitzea ere.

Apartatu honetan, planteatutako neurri guztiak martxan jarri dira dagoeneko.

10. Arrazakeriaren eta xenofobiaren biktimei akonpainamendua eskaintzen dieten erakundeen defentsa gaitasuna indartzen laguntzea.

Apartatu honetan, planteatutako neurri guztiak martxan jarri dira dagoeneko.

11. Biktimen errekonozimendua, duintasuna eta ikusgarritasuna sustatzea, oroimen kolektiboan eta espazio publikoan haien presentzia bermatuz.

Apartatu honetan, planteatutako neurri guztiak martxan jarri dira dagoeneko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

⁶ A15. Erakunde sozialekin kontsultarako mekanismo bat ezartzea, urtero balantze bat egiteko, genero ikuspegitik, eduki arrazista edo xenofobia duten jarreraren eta portaeren, gertakarien eta gorroto delituen bilakaerari eta aldaketei buruz.

⁷ A21. Xedeak aukera ematen duenean, foru legeriako arraza eta/edo xenofobiagatiko bereizkeriarik eza bermatuko duten aurretiazko ebaluazio txostenak egitea, onetsi aurretik.

⁸ A27. Etxebizitzaren merkatuan arraza eta xenofobiagatiko bereizkeria eta sexuagatiko bereizkeria debekatzen dituen jokabide kode baten arau garapena. Arreta berezia jartzea zaurgarritasun egoera handienean dauden taldeen gainean (egoera irregularrean dauden pertsonak, guraso bakarreko familiak, genero indarkeriaren biktimak diren emakumeak).

⁹ A33. Udalek estatuko eta nazioarteko sare eta plataformetan parte har dezaten bultzatzea, arrazakeriaren eta bereizkeriaren aurkako borrokan.

¹⁰ A40. "Biktimizazio bikoitza" murriztea, administrazio publikoaren, hirugarren sektorearen eta polizia eta jurisdikzio organoen jarduketako koordinaturako protokoloa adostuz, bikoiztasunak eta desberdintasunak saihesteko.

11-25/PES-00136. Galdera, zenbait ganadu-motak eta abeltzaintza-ustiategik 1990etik 2024ra bitarte izandako bilakaerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak zenbait ganadu-motak eta abeltzaintza-ustiategik 1990etik 2024ra bitarte izandako bilakaerari buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galde-ra 2025eko martxoaren 21eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxi-kitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00136 idatzizko galdera egin zuen, zenbait ganadu-motak eta abeltzaintza-ustiategik 1990etik 2024ra bitarte izandako bila-kaerari buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Ustiategiak espeziez espezie:

	1987	1989	1991	1993	1995	1997	1998	1999	2000
Bovino	4.555	4.733	4.552	3.545	3.197	3.704	3.111	2.815	2.770
Ovino	2.750	3.062	3.064	2.873	2.442	2.837	2.560	2.572	2.644
Porcino	5.602	4.404	3.121	2.633	2.043	2.789	1.763	1.547	1.431
Caprino		1.224	1.048	836	832	736	720	710	705
Equino		1.083	1.397	1.400	1.379	1.562	939	1.212	1.234
Aves			671	682	650	579	203	209	216
Conejos			250	253	253	239	97	102	98
Apicultores							434	453	572
Piscicultura							13	13	13
TOTAL	12.907	14.506	14.103	12.222	10.796	12.416	9.840	9.633	9.683

Zer bilakaera izan du 1990etik 2024ra bitarte ganadu-mota hauen abelburu-kopuruak: behiak, ardiak, zerriak eta hegaztiak? Erantzuna urte horietako bakoitza zehaztuta eman dadila eska-tzen dut.

Zer bilakaera izan du 1990etik 2024ra bitarte ganadu-mota hauen ustiategi-kopuruak: behiak, ardiak, zerriak eta hegaztiak? Erantzuna urte horie-tako bakoitza zehaztuta eman dadila eskatzen dut.

Horiei erantzunez, honako hau adierazi behar da:

Interneteko hurrengo estekan abere-erolden informazio zehatza jasotzen da, urteko datuen zenbait taularen bidez. Izandako bilakaera ere jasotzen da. Informazioa sarbide publikokoa da. <https://www.navarra.es/eu/nekazaritza-eta-abeltzaintza/abeltzaintza/azienda-errolak>.

Webgunean azken 24 urteotako datuak jasota daude, beraz, 1990 eta 2000 arteko datuak falta dira. Hori dela eta, informazio hori hurrengo taule-tan jaso dugu.

Animalien errolda:

	1987	1989	1991	1993	1995	1997	1998	1999	2000
BOVINO	85.395	82.841	82.073	73.200	75.473	92.445	102.741	102.675	109.705
OVINO	59.872	68.868	68.575	65.785	69.282	108.530	129.340	129.496	127.089
CAPRINO	1.858	2.363	2.071	1.685	1.686	2.170	2.177	2.190	2.122
PORCINO	51.520	57.985	58.735	51.854	52.593	60.897	70.594	65.323	66.478
CABALLAR	6.428	6.240	7.361	6.607	7.234	9.781	8.999	10.613	11.467
TOTAL	205.073	218.297	218.815	199.105	206.268	273.823	313.851	310.297	318.861

Animalien erroldaren taulan ez daude jasota hegaztiei buruzko datuak, Abeltzaintza Zerbitzuak informazio hori ez duelako.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00137. Galdera, Nekazaritza-jardunbide onen Kodea behar bezala betetzen ote den kontrolatze aldera abeltzaintza-ustategietan ikuskapenak egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nekazaritza-jardunbide onen Kodea behar bezala betetzen ote den kontrolatze aldera abeltzaintza-ustategietan ikuskapenak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 21eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00137 idatzizko galdera egin zuen, Nekazaritza-jardunbide onen Kodea behar bezala betetzen ote den kontrolatze aldera abeltzaintza-ustategietan ikuskapenak egiteari buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

– Eremu zaugarri bakoitzean, nekazaritzako zenbat ustategi daude inplikatura?

Eremu zaugarria	Nekazaritzako ustiategien kopurua
1. eremua - Mendabia	54
2. eremua - Ebro-Aragoi	1625
3. eremua - Zidakos ibaiaren arroa	757
4. eremua - Robo ibaiaren arroa	440

– Eremu zaugarri bakoitzean, zer bilakaera izan du, 2015etik 2019ra bitarte, ustiategi-kopuruak? Nabarmenezkoa da eremu zaugarrien kokatutako ustiategien kopuruak 2018tik aurrera

izandako hazkunde esponontzialaren arrazoiak honakoa dela: eremu zaugarri gisa hartutako azalera 2017an 23.731 hektareakoa izatetik, 2018an 98.850 hektarea izatera igaro zen.

Eremu zaugarria	Nekazaritzako ustiategien kopurua				
	2015	2016	2017	2018	2019
1. eremua - Mendabia (*)	-	-	-	-	-
2. eremua - Ebro-Aragoi	610	577	555	1973	1929
3. eremua - Zidakos ibaiaren arroa	284	268	268	939	932
4. eremua - Robo ibaiaren arroa	492	479	455	462	454

(*) 2013an Ebro ibaiaren Errioxa-Mendabia (048) alubialaren masarekin lotutako 1. eremua kanpoan utzi zen, nitrato edukia bilakaera beheranzkoa baitzen.

– Zenbat ikuskapen egin ziren 2015etik 2019ra bitarte nekazaritzako ustiategietan Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodea behar bezala betetzen zela kontrolatzeko? Datuak eremu zaugarrien arabera banakatuta ematea eskatzen dut.

Eremu zaugarria	Nekazaritzako ustiategietan egindako ikuskapenen kopurua (parentesi artean abeltzaintzako ustiategiak)				
	2015	2016	2017	2018	2019
1. eremua - Mendabia (*)	-	-	-	-	-
2. eremua - Ebro-Aragoi	8	7	6	14 (1)	28 (2)
3. eremua - Zidakos ibaiaren arroa	4	4 (1)		10	18 (1*)
4. eremua - Robo ibaiaren arroa	7	5	5	4	9 (1)

(1*) 2019an 3. eremuan eta 4. eremuan egindako ikuskapena ustiategi berari dagokio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00138. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetako langileen egonkortze-prozesuen amaierari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako administrazio publikoetako langileen egonkortze-prozesuen amaierari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 21eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-

25/PES-00138 galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

1. Departamentu, enpresa edo fundazio publiko bakoitzeko, zenbat lanpostu sartu dira egonkortze-prozesuetan 19/2022 Foru Legearen xedapenekin bat?

Langileriaren Prozedurak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, egonkortze-prozesuetan sartutako lanpostu-kopuruak honako hauek ziren 2022ko abenduaren 31ko datan (deialdien epemuga), orduko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen eta bertako organismo autonomoen arabera banatuta:

	OPOSIZIO-LEHIAKETA	MEREZIMENDU-LEHIAKETA
DEPARTAMENTUAK	PLAZA-KOPURUA	PLAZA-KOPURUA
LURRALDE KOHESIOA	9	19
KULTURA ETA KIROLA	4	20
ESKUBIDE SOZIALAK	21	111
GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALA	3	17
LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	13	55
EKONOMIA ETA OGASUNA	4	31
HEZKUNTZA	303	762
LURRALDE ANTOLAMENDUA, ETXEBIZITZA, PAISAIA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	1	7
MIGRAZIO POLITIKAK ETA JUSTIZIA	4	6
LEHENDAKARITZA, BERDINTASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA BARNEKOA	12	161
HERRITARREKIKO HARREMANAK	2	3
OSASUNA	289	1.664
UNIBERTSITATEA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	5	7
GUZTIRA	670	2.863

2. Lanposturen bat gelditu al da bete gabe egonkortze-prozesuren batean? Zeinetan?

CO	GEOLOGOA	Plaza bat bete gabe
CO	LOGOPEDA	Plaza bat bete gabe
CM	BARRUTIKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA ERRADIODIAGNOSTIKOA	Plaza bat bete gabe
CO	OSASUN DOKUMENTAZIOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	Hiru plaza bete gabe

3. Egindako egonkortze-prozesuen ondorioz, lanposturik lortu ez duen zenbat pertsonak jaso du 19/2022 Foru Legean aurreikusitako kalteordaina? Guztira zenbat diru ordaindu behar izan die Foru Administrazioak pertsona horiei? Zehaztu departamentuen, enpresen eta fundazio publikoen arabera.

Langileriaren Gastuaren Kontrolaren eta Nominen Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, 2025eko otsailaren 28ra arte, 884 laguni ordaindu zaie uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 12. artikuluan ezarritako konpentsazio eko-

nomikoa egonkortze prozesuak ez gaitziteagatik (19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako administrazio publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko eta bertako erakunde autonomoetako zerbitzupeko langileei guztira ordaindutako zenbatekoa, 2025eko otsaileko nominara bitartean, honakoa da:

Departamentua	Zenbatekoa
LURRALDE KOHESIOA	34.162,14
KULTURA, KIROLA ETA TURISMOA	67.919,17
ESKUBIDE SOZIALAK, EKONOMIA SOZIALA ETA ENPLEGUA	272.864,67
LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	219.271,14
EKONOMIA ETA OGASUNA	66.130,99
HEZKUNTZA	1.127.164,58
INDUSTRIA ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKOA ETA DIGITALA	97.139,78
BARNEKOA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA JUSTIZIA	132.410,92
MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA	15.189,03
LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUNA	26.119,35
OSASUNA	3.139.068,05
UNIBERTSITATEA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	37.083,32
Guztizko orokorra	5.234.523,14

4. Egonkortze-prozesuak bukatuta, zein da departamentu, enpresa eta fundazio publiko bakoitzak 2024ko abenduaren 31n zeukan behin-behinekotasunaren tasa?

Egiturako, Plantillako eta Langileen Aldi Bate-rako Kontrataziorako Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, Nafarroako Gobernuako egiturazko behin-behinekotasun tasa honakoa zen 2024ko abenduaren 31ko datuen arabera:

Departamentua	Egiturazko behin-behinekotasun tasa
LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUNA	% 24,59
MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA	% 27,03
ETXEBIZITZA, GAZTERIA ETA MIGRAZIO POLITIKAK	% 24,47
EKONOMIA ETA OGASUNA	% 15,43
HEZKUNTZA (Irakasleak)	% 19,65
HEZKUNTZA (Irakasle ez diren langileak)	% 19,91
OSASUNA	% 13,09
LURRALDE KOHESIOA	% 21,97
INDUSTRIA ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKOA ETA DIGITALA	% 17,81
ESKUBIDE SOZIALAK, EKONOMIA SOZIALA ETA ENPLEGUA	% 27,65
UNIBERTSITATEA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	% 26,49
BARNEKOA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA JUSTIZIA	% 4,70
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA	% 24,29
LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	% 24,61
KULTURA, KIROLA ETA TURISMOA	% 19,00
Batezbesteko haztatua	% 16,36

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00139. Galdera, Nafarroan errefuxiatuak hartzeko protokolo integrala eguneratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroan errefuxiatuak hartzeko protokolo integrala eguneratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 21eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA


Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariori atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00139 informazio-eskaera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Nafarroako Gobernuak Nafarroan errefuxiatuak hartzeko protokolo integrala eguneratzea aurreikusten al du?

Migratzaileen eta errefuxiatuen harreran nazioarteko, Europako, Estatuko eta tokiko esku-menek bat egiten dutenez, sakon lan egin da lurralde maila horietako arauak, planak eta estrategiak behar bezala konektatzeko. Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak Migratzaileei Harrera Egiteko Nafarroako Plana (2021-2026) du. Aipatu plana 2018ko Errefuxiatuei Harrera Egiteko Nafarroako Protokolo Integrala onartu ostekoa da.

Migratzaileei Harrera Egiteko Nafarroako Planak honela definitzen du harrera: “Eskualde batera iristen diren pertsonen beharrak estaltzeko eta horien aspirazioak aintzat hartzeko beharrezko elementuak eskaintzen dituen prozesua. Diziplina anitzeko esku-hartze sozial eta psikosoziala garatzea dakar, harrera egiten zaion pertsonaren erabateko inklusiora bideratuta dagoena eta kulturartekotasunaren ikuspegi batetik diseinatutako baliabideak eta instrumentu espezifikoak behar dituen, genero ikuspegia duen metodologia aplikatuz eta jada lurraldeko biztanle guztientzako dauden zerbitzuak egokitzea barne hartuz”.

Horrenbestez, harrera egiten zaien pertsonen erabateko gizarteratzea lortzeko helburua betetzeko, Plana sei ardatz estrategikoren inguruan artikulatzen da:



1. ardatza. Jatorrian prestatzea eta heltzean arreta ematea; 2. ardatza. Esku-hartze espezializatua profil zehatzetan; 3. ardatza. Instituzioak dagoen kultura aniztasunera moldatzea; 4. ardatza. Komunikazioa sustatzea eta aliantza eraginkorrek garatzea; 5. ardatza. Indartze komunitarioa eta kulturarteko parte-hartzea; 6. ardatza. Genero berdintasuna sustatzea.

Planak lehentasunezko bederatz jardura ildo ere baditu: 1. Informazio, orientazio eta hizkuntzak ikasteko zerbitzuak, eta zerbitzu orokorretarako sarbidea hobetu eta garatzea; 2. Ekintza komunitarioa eta maila anitzeko aliantza estrategikoak migrazio prozesuak eta horien tokiko inpaktua modu globalean kudeatzeko; 3. Esparru juridiko, administratibo eta kontzeptual argia eta operatiboa sustatzea, eskubideen ikuspegi batetik; 4. Migratzaileei harrera

egiteko gaitasun kulturalak eta kulturartekoak garatzeko prestakuntza-, gaituntza- eta sentsibilizazio-sistema egonkorra sortzea; 5. Prozesu integral eta jarraituak sortzea familia unitateen inguruan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztarotik; 6. Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunen harrerako eta inklusioko sistema modu koordinatuan ezartzen aurrera egitea; 7. Ostatu arloko beharrei behar bezala erantzuteko neurriak sustatzea; 8. Osasunaren ikuspegi prebentibo eta integrala jorratzea ahalbidetzen duten prozesu eta ekintzak garatzea; 9. Laneratzekeko prozesuak indartzea.

Era espezifikoan, 1. ardatza eta 1., 3. eta 6. ildo estrategikoak osoki artikulatuta daude migrazioaren gertakari sozialari eragiten dioten arautan izan daitezkeen aldaketei erantzuteko. Aipatutako ardatza eta ildo estrategikoak lau zerbitzu estrategiko ematean gauzatzen dira:

- *Migrazioen arloko Orientazioko eta Oinarrizko Informazioko Zerbitzua*: Zerbitzuak lehen harrera ematen die migratzaileei hainbat kudeaketaren eta izapideren gaineko informazioa eta aholkularitza emanez, bai eta Nafarroako errealtate administratiboaren eta kulturalaren gaineko ezagutza ere.

- *Atzerriartasunaren arloan Arreta eta Aholkularitza Juridikoa emateko Zerbitzua*: Zerbitzuak asilo eta atzerriartasun eskubideari buruzko informazioa ematen du, bai eta eskubide horretatik eratorritako administrazio-prozesuen gaineko laguntza ere.

- *Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioaren Zerbitzua*: Zerbitzuak komunikazioa eta elkar ulertzea errazten du, bai eta kulturalki askotarikoak diren gizarte egoeratan sor litezkeen gatazken ebazpena ere.

- *Gizarteratzeko ahaleginaren txostena egiteko eta izapidetzeko Zerbitzua*: Aldi baterako bizilekubaimena edo lan-baimena berritzea eskatu eta legeak ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutenentzat, beharrezkoa izan daiteke gizarteratzeko ahaleginaren txostena aurkeztea.

Aurreikusitako neurriek, guzti-guztiek, laguntzen dute Errefuxiatuei Harrera Egiteko Nafarroako Protokolo Integrala garatzea, inplementatzea eta hobetzea, metodologiak eta baliabideak unean unean harrera jasotzen dutenen beharretara egokitzuz, bai eta prozesuan parte hartzen duten aktore guztien eskarierara ere. Hori guztia, jakina, ezinen litzateke aurrera eraman administrazio publikoen, erakunde

sozialen eta gizarte zibilaren inplikaziorik eta partaidetzarik gabe, harrera ematen duen eta harrera jasotzen duen gizarte zibilik gabe. Neurriok, hori bai, ez dira migratzaileen gizarteratze integrala bultzatzeko Harrera Planaren esparruan aurreikusitako jarduketak bakarrik, ezta Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak eskura dituen beste bi erremintetan ere: i) Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana (2021-2026); eta ii) Nafarroako Kulturen Arteko Bizikidetzaren Estrategia (2021-2026).

Bestalde, Errefuxiatuei Harrera Egiteko Nafarroako Protokolo Integralak errefuxiatuen harreran inplikaturako eragileak zein diren definitzen eta ezartzen du, hau da, Nafarroako Harrera Sarea. Honako hauek osatzen dute Nafarroako Harrera Sarea: Nafarroako Gobernua, Nafarroan programa kudeatzen duten egiaztatutako erakundeak, eta harrera eta integrazio prozesuetan laguntza ematen duten bestelako eragileak (udalak, mankomunitateak, erakunde sozialak, gizarte zibila eta errefuxiatuak eurak).

Bai protokoloak berak bai administrazio autonomikoak, toki-administrazioek eta gainontzeko eragile parte-hartzaileek Estatuko Harrera Sistema osatzen duten fase guztietan zehar protokoloa betez hartutako funtzioek, nabarmendu egiten dute behar-beharrezkoa dela programaren kudeatzaile diren erakundeen, Nafarroako Gobernuaren eta harrerako udalerraren arteko koordinazioa bultzatzea. Hori guztia, pertsona horien harrera hobetzeko ekintzen bidez, hala nola: jarraipen bilerak eta harrera programa hobetzeko lan saioak, kasuak maila teknikoan kudeatzeko bilerak eta abar.

Protokoloak honakoak definitzen ditu: i) errefuxiatuen harreran inplikaturako aktoreak; ii) harreraren lau faseak (ebaluazioa eta bideratzea; harrera; laguntza eta integrazioa; eta bizitza autonomia); iii) harrera eta integrazio egoki baterako koordinazio-mailak; iv) osasun eta hezkuntza sistemetara sarrera; v) etxebizitzara sarrera; eta vi) prestakuntzara eta enplegura sarrera.

Protokoloa aldatzeko aukera protokoloan bertan jasota dago: i) Estatuko Harrera Sistemaren aldaketak gertatzen diren neurrian eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministeriok etorkizunean emandako jarraibideen arabera; eta ii) aintzat hartuta inplikaturako aktore guztiek adierazitako interesak eta beharrak.

Atzeritartasun Erregelamendu¹ berriak aldaketak ekarri ditu, bereziki honako arlo hauetan: sustraitzea, familia berrelkartzea, eta bisatuak eta bizileku-baimenak eskuratzeko asiloa edo babesa lortu duten pertsonen edo lortzeko eskaera egin duten pertsonen egoeratik askoz harago doana—. Espainian Atzeritartasun Erregelamenduaren babesean sustraitzean oinarritutako bizileku-baimena eskatzean, sustraitzea arrazoi sozialetan, soziolaboralean, sozioformatiboetan eta familiarretan oinarritu zitekeen lehen, eta, egun, “bigarren aukerako sustraitzea” deitutako bosgarren posibilitate bat ere gehitu da.

Asilo eskatzaileek² inolaz ere ezin dute baliatu bosgarren xedapen gehigarria, salbu eta ez badute hasierako eskaerari edo jarritako balizko errekursoari buruzko epai irmorik.

Iragarpena egin zenetik, bai Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia bai gorago aipatu eta deskribatu ditugun zerbitzuak ematen dituzten erakunde kolaboratzaileak harremanetan daude, erregelamenduan onartutako aldaketek migratzaileen kasuan kasuko egoerekin lotuta gaur egun eskuragarri dauden bideei eta izapidetze ereduei eragiten dieten jakin zain.

Bestalde, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa erakunde kolaboratzaileei prestakuntza eskaintzen ari da uneotan lurralde osoan. Zehazki, erregelamenduan definitutako bost sustraitze aukeren gaineko online prestakuntza ematea aurreikusita dago apirilko lehen astean. Esan bezala, neurriok ez dira aplikagarriak nazioarteko babesa eskatu duten pertsonentzat.

Aipatu pertsonen kasuan, eskaeran atzera egiteak “tolerantziako” egoera batetik “irregulartasuneko” batera igarotzea esan nahiko luke, hau da, kronometroa martxan jartzea egoera irregularrean bizitako denbora zenbatzeko, Espainian bi urte bizitzen egon eta gero sustraitzea eskatu ahal izateko.

Azaldu bezala, Migratzaileei Harrera Egiteko Nafarroako Plana, Errefuxiatuei Harrera Egiteko Nafarroako Protokoloa onartu ostekoa da, eta, horrenbestez, lehendabizikoaren gobernantzari men eginez, baloratu beharko da ea berrikustea beharrezkoa den edo ez, inplikaturako eragilean iritzia aintzat hartuta.

Hala baldin bada, hasi al da prozesua? Noiz aurreikusten duzue bukatuko dela?

Migratzaileei Harrera Egiteko Planaren Gobernantza prozesu parte-hartzaile batean oinarrituta dago; are, hurrengo asteetan, aurtengo prozesua jarriko da martxan. Ez da erregelamendua aplikatzearen ondorio izanen, baizik eta Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren bi planen (Migratzaileei Harrera Egiteko Plana eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Plana) eta estrategiaren (Kulturen Arteko Bizikidetzaren Estrategia) jarraipena egiteko hartutako konpromisoarena. Jarraipena egiteko informazioko eta partaide-tzako espazioak artikulatu dira, espazioon funtzionamendua urteko plan operatiboan bitartez zehaztu delarik. Guztira hiru espazio dira:

1. Harreman teknikoetarako espazioa: Nafarroako Gobernuako departamentuetako, toki-erakundeetako eta erakunde sozialetako teknikariak biltzen ditu.

a. Departamentu arteko eta administrazio arteko harreman teknikoak.

b. Erakunde sozialen eta elkarten arteko harreman teknikoak.

2. Herritarren harremanetarako espazioa: herritarrak ordezkaturik daude bertan. Logikoa den bezala, migratzaileek eta euren elkarteek protagonismo berezia dute, baina baita herrietako eta auzoetako ehun asoziatiboak ere.

3. Harreman instituzionalen espazioa: egitasmoen garapenean inplikaturako zuzendaritza nagusiak eta kudeatzaileak biltzen ditu.

Espaziotan egindako galdera parlamentarioarekin lotutako auziak formulatuko dira, adibidez migratzaileak artatzeko artikulaturako baliabideak eta zerbitzuak egokitzea eragin dezaketen araudi aldaketak.

Era berean, zenbait astetatik, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia eta Atzeritartasunaren arloan Arreta eta Aholkularitza Juridikoa emateko Zerbitzua bilerak izaten eta informazioa trukatzeko ari dira, prest izateko erregelamendu berria indarrean jartzeak ekar dezakeen arreta eta aholkularitza eskaeren hazkundera aurre egiteko. Egindako bileretan zenbait neurri adostu dira erregelamendu berria indarrean jarri aurretik implementatu daitezkeen, helburu hartuta informazioa ematea, Atzeritartasu-

¹ 1155/2024 Errege Dekretua, azaroaren 19koa, onartzen duena Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua.

² Eskatzaile gisa hartzen ditu modu argi eta zalantzarik gabean adierazten dutenak asiloa eskatzeko prozesuan murgilduta daudela, oraindik ere elkarriketaren zain izan arren.

naren arloan Arreta eta Aholkularitza Juridikoa emateko Zerbitzura sarbidea hobetzea, eta prozesu administratiboetan laguntza egokia ematea:

- Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren webgunean espazio bat sortzea “Ohiko galderak” izenpean, zehazki, Atzerritartasunaren arloan Arreta eta Aholkularitza Juridikoa emateko Zerbitzuari eskainitako espazioan.

- Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren webgunean formulario bat gaitzea atzerritartasun arloko informazioa eta aholkularitza eskatzen duten herritarrek betetzeko, Atzerritartasunaren arloan Arreta eta Aholkularitza Juridikoa emateko Zerbitzuak aukera izan dezan arreta eta aholkularitza eskatzaileekin harremanetan jartzeko, zerbitzuaren telefonoguneak gainezka egitea saihestuz.

- Atzerritartasun arloarekin lotutako prozesu administratiboetako adituekin hitzordua lortzeko aurrez aurreko arretako eta telefono bidezko arretako ordutegiak egokitzea.

Era berean, Harrera Planeko erakunde kolaboratzaileekin elkarlanean, zenbait formatutako prestakuntza saioak antolatu dira (aurrez aurrekoak eta online) hiru eskualdetan:

- Oinarrizko prestakuntza profesionalentzat-Atzerritartasun Erregelamenduaren berrikuntzak:

Tafallan, apirilaren 28an, goizez.

- Prestakuntza aurreratua profesionalentzat-Atzerritartasun Erregelamenduaren aplikazioa:

Iruñean, ekainaren 6an, goizez.

Tafallan, ekainaren 9an, goizez.

Tuteran, ekainaren 12an, goizez.

Online, ekainaren 13an, goizez.

Online, ekainaren 12an, arratsaldez.

- Prestakuntza aurreratua erabiltzaileentzat-Atzerritartasun Erregelamenduaren aplikazioa:

Burlatan, ekainaren 19an, arratsaldez.

Azaldutako neurri hauen guztien bitartez, erregelamenduaren aldaketak ekarritako behar berriei erantzuteko moduan izatea espero dugu, bai eta behar adina informazio biltzea ere Errefuxiatuei Harrera Egiteko Protokoloan aldaketak sartzearen egokitasuna baloratzeko.

Zer alderdi zehatz aldatuko dira? Atzerritartasun Erregelamendu berriak ukitzen dituenak soilik, ala beste aldaketa batzuk egiteko ere baliatuko da aukera? Hala baldin bada, zeintzuk eta zer zentzutan?

Errefuxiatuei Harrera Egiteko Nafarroako Protokolo Integralak, agiriak jasotzen duen bezala, “gure komunitatean gizarteratzeko eta harrerako prozesuak hobetzea eta indartzea du helburu. Lortu nahi du prozedurak bateratzea, prozesuan inplikaturako aktoreen artean garatu beharreko ekintzak adostea eta koherente egitea, eta hainbat eremutatik aurrera eraman daitezkeen ekintzak koordinatzea”.

Idatzi zutenentzat protokoloa oinarrizko abiapuntu bat zen errefuxiatuak hartzeko prozesuen lehen faseetan zehar, jarduteko beharrezko erreferentziazko esparru bat. Era berean, prozesuaren etapetan beharrezkoak ziren prozesuei, jarduketei, koordinaziozko mekanismoei eta baliabideei buruzko dokumentu informatibo bat ere bazen, aintzat hartzen zituena administrazio autonomikoaren eta tokiko administrazioaren, hirugarren sektorearen, herritarren eta errefuxiatuen arteko beharrezko sinergiak ere.

Jatorrian Eskubide Sozialetako Departamentuak gidatutako ekimena izan bazen ere, honako hauek ere hartu zuten parte protokoloa prestatzeko talde eragilean: Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiak, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera eta gizarteratzeko programa kudeatzeko Nafarroan akreditatuta dauden erakundeek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF), errefuxiatuen presentzia duten udalek, “Iruña, Harrera Hiria” herritar plataformen ordezkariak, protokoloaren xede den gaiarekin loturiko erakundeek, eta errefuxiatu batek.

Onartu zenetik, berriz, honakoek ere bat egin dute egitasmoarekin: i) sortutako eragile berriek, adibidez Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia; ii) sortutako erreminta berriek, adibidez Harre-ra Plana, Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurka Borrokarako Plana eta Kulturen Arteko Bizikidetzaren Estrategia; eta iii) bestelako baliabideek eta zerbitzuek, adibidez Orientazioko eta Oinarrizko Informazioko Zerbitzua eta Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Zerbitzua, aurretik aipatutako Atzerritartasunaren arloan Arreta eta Aholkularitza Juridikoa emateko Zerbitzura gehitu direnak, aktoreen gaineko protokoloaren apartatua moldatuz. Era berean, Migrazioaileei Harrera Egiteko Planean aurreikusita daude dagoeneko bai zeharkako elementuekin lotutako jatorrizko dokumentuko puntuak –i) ebaluazioa; ii) sentsibilizazioko ekintzak; iii) harrerako sistemako profesionalen prestakuntza;–, bai iv) Nafarroako baliabideen gida –informatzeko eta administrazioek eta erakundeek herritarrentzat oro har eta errefuxiatuentzat bereziki dituzten baliabi-

deak ezagutarazteko tresna baliagarri izateko sortuta dago—.

Protokoloan honako hauen gaineko erreferentziak daude: harrerari buruzko dokumentuak eta materialak (oinarrizko araudia, aktore nagusiak eta beste); itzultzaileak bezalako baliabide interaktiboak; administrazioekin harremanetan jartzeko espazioak; eta etxebizitza, hezkuntza edo osasuna bezalako auzi praktikoei buruzko informazio-blokeak, auzi zehatzagoen gaineko esteka eta guzti (bekak, haurrentzako laguntzak, osasun txartela lortzeko moduari buruzko argibideak eta beste). Kontu horiek guztiak beharrezkotzat jotzen diren dagoeneko Harrera Planean eta, ondorioz, kontuon garapena aurreikusita zegoen dagoeneko aurreko urteko plan operatiboetan, eta hala dago ere 2025eko urteko plan operatiboan. Kontuok guztiok funtsezko auziei erantzuten diete, adibidez baliabideen antolaketa Nafarroan edo

Nafarroara heldutako pertsonen gizarteratze prozesuan laguntzeko instrumentuen eta zerbitzuen gaineko informazioa.

Protokoloa abiapuntu izanen da, Nafarroako Gobernuko departamentuetako, toki-erakundeetako eta erakunde sozialetako teknikarien arteko harreman teknikoko espazio, zertarako eta aipatu protokoloa aldatzeko beharra dagoen baloratzeko, bai eta beste departamentu, toki-erakunde edo erakunde sozialen mendeko beste protokolo batzuk ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2018ko apirilaren 8an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politika-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00140. Galdera, Sodenaren, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren eta Albyn Medicalen arteko akordioaren arduraduneri buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Sodenaren, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren eta Albyn Medicalen arteko akordioaren arduraduneri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 28ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak 11-25/PES-00140 informazio-eskaera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Horrek esan nahi al du ez dela akordio hori hartzeko inolako txosten tekniko edo juridikorik egin Sodenan? Erabakia Sodenaren Kontseiluan hartu al da? Aho batez hartu al da erabakia, ala aurkako botorik edo abstentziorik egon al da?

Sodenako administrazio-kontseiluan ez zen erabaki txostenik ez egitea.

Sodenako administrazio-kontseiluak aho batez adostu zuen jarraitzea Nafarroako Kontuen Ganberak 2022ko abenduaren 16an egindako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat norbera babesteko ekipamenduak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako akordioari buruzko fiskalizazio txostena" dokumentuan jasotako aholkuak. Txostenean auzi honekin lotutako eragiketa guztiak fiskalizatu ziren eta honako gomendioa egiten zen 9. orrialdean: "Sortutako egoera konpontzeko, akordio bat lortu behar da alderdien artean. Horretarako, zuzenbidean dauden mekanismoak erabil daitezke, hala nola alderdiek onetsitako bitartekaritza edo arbitrajea".

Hori bai, aintzat hartu behar da edozein irtenbide adostuz gero akordioaren interpretazioarekin zein maskaren erabilerarekin lotuta, zuzenean

helarazi behar zitzaiea bai bazkide bakarrari bai Gobernuari, eta bi erakundeek baliozkotu behar zutela.

Bada, aipatu jarduketa beteta, alde biko akordioak sinatu ziren Ablyn Medical/Creo Medical-ekin 2023ko apirilaren 3an eta Nafarroako Enpresaburuaren Elkargoarekin (CEN) 2024ko azaroaren 14an.

Jarraian, eta soil-soilik kabineteak horren berri izan dezan, transkribatu ditugu Kontuen Ganberak 2022ko abenduan egindako txostenaren ostean egindako administrazio-kontseiluaren bileren aktak, aurreko azalpenaren justifikazio gisa.

2022ko abenduaren 23a

Presidente jaunak aste honetan parlamentuan egindako hitzaldiaren inguruko informazioa eman du, bai eta Kontuen Ganberak izapidetutako eta egindako txostenaren gainekoa ere, hori guztia lotuta pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat norbera babesteko ekipamenduak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako akordioarekin. Bildutakoek txostenaren balorazioa egin eta euren iritziak agertu dituzte, eta presidente jaunak beste behin ere berretsi du aurretik adierazitakoa, hots, akordioaren interpretazioarekin zein maskaren erabilerarekin lotuta hartutako edozein irtenbide zuzenean helaraziko zaiela bazkide bakarrari eta Gobernuari, eta bi erakundeek baliozkotu beharko dutela.

2023ko urtarrilaren 27a

Presidente jaunak hitza hartu du, eta aste honetan bertan Garde andreak eta Arrizabalaga jaunak parlamentuan egindako agerraldien gaineko informazioa eman du, biak ere Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartze Zerbitzuko kideak.

Jarraian hiru aldean arteko akordio proposamena aipatu du –Albyn, CEN eta Sodena–, administrazio-kontseiluari helarazi diona eta honako ezaugarriak dituena: Sodenaren kasuan, maskaren egungo balioa kobratzea (126.000 euro gutxi gorabehera), BEZaren erregularizazioa barne hartuta (130.000 euro gutxi gorabehera); eta maskaren banaketa, merkaturatzea edo erabilera Albyn eta CENen esku geratzea. Horrela eginda, Kontuen Ganberak egindako errekerimendua betetzen dela ulertzen da, egindako txostenean sinatzaileen erantzukidetasuna egiaztatzen denez, euren baitagokie maskarek irtenbidea ematea. Zenbait parte-hartzaileek hartu dute hitza, eta aurreko bileretan adierazitakoa berretsi dute. Ondoren, aho batez, honako AKORDIOA hartu dute:

1.- Proposatutako akordioa positibotzat jotzea, ulertuta Albyn eta CENekin zabalik den auzia

konpontzeko modua dela, hau da, pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat norbera babesteko ekipamenduak erosteko finantza-laguntzaren auzia.

2.- Berrestea beharrezkoa dela proposatutako akordioa formalki alde aurretik baliozkotzea, bai bazkide bakarrak (Nafarroako Enpresa Kooperazio Publikoa Sozietate Mugatua), bai Nafarroako Gobernuak. Aurreko bileretan presidente jaunak azaldu bezala, horrela egin ezean akordioak ez du eraginkortasun osorik izanen.

3.- Zuzenbidean egokia den bezain era zabalean ahalduntzea Mikel Irujo Amezaga jauna eta Maria Eugenia Lecumberri Alli andrea bietako edonork, sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, zehaztutako akordioa izenpetzeko aukera izan dezan proposatutako baldintzak aintzat hartuta eta behin aurreko puntuan adierazitako baliozkotze formala gauzatu eta gero.

2023ko apirilaren 3a

Irujo jaunak hartu du hitza, eta administrazio-kontseiluko kide guztien artean izandako azken komunikazioei buruz aritu da, Kontuen Ganberak txostenean adierazitako erantzukidetasunetan azpimarra jarritz.

Zenbait parte-hartzailek hartu dute hitza, eta guztiak bat etorri dira, besteak beste, negoziorearen alderdi globalak baloratzeko orduan. Era berean, funtsezkotzat eta erabakigarritzat jo da edozein erabaki hartzeko orduan zuzendaritza letradunaren ardura duten abokatuen aholkuak jarraitzea. Ondoren, aho batez, honako AKORDIOA hartu dute bildutakoek:

1.- Adostasuna agertzea talde juridikoak proposatutako alde biko akordioa sinatzeko Creo Medical sozietate mugatuarekin –akordioan, aipatu sozietateak izandako erantzukidetasuna onartzen du, bai eta sortutako galera ekonomikoaren zati bat ere; hala, beste konpromiso batzuen artean, 274.338 euro ordaintzea onartzen du–. Presidente jauna ahalduntzea proposatutako akordioa hobetzeko beharrezko dokumentu publikoak eta pribatuak sinatzeko.

2.- CENi jakinaraztea Creo Medical sozietate mugatuarekin lortutako akordioa, eta gogoraraztea Kontseilu honen prestutasuna, bere erantzukizunpean eta Sodenaren partetik inolako eragozpenik jaso gabe, maskarak dohaintzan eman ditzen edo maskarekin bidezkotzat jotzen duena egin dezan –enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat norbera babesteko ekipamenduak erosteko lankidetzarako eta finantza-

laguntzarako 2020ko maiatzaren 7ko akordioak eragindako maskarak—.

3.- Izapideak hastea kontratutako zerbitzu juridikoak CENen aurkako demanda egiten has daitezen, Kontuen Ganberak ebatzitako erantzukidetasunetik ondorioztatzen dena. Era berean, beharrezkoa balitz, balizko arbitraje batera jotzeko aukera aintzat hartuko litzateke alternatiba gisa.

2023ko irailaren 29a

Presidente jaunak jakinarazi du abokatu bulego batek demandaren idazkia egin duela. Eskatu du prokuradoretzako eta abokatutzako profesionali ahalordeak emateko eskumenik ez duenez, dagokion eskumenak eman dakizkiola. Era berean, presidente jaunak baimena eskatu du inplikaturako aldeekin negoziazioak abiatzeko, auzia judizializatzea saihestuko luketen akordioak lortzea helburu.

Ondoren, bildutako guztiek, aho batez, honako AKORDIOA hartu dute:

1. Mikel Irujo Amezaga presidente jauna (NAN zenbakia: 72811232V) ahalduntzea prokuradoretzako eta abokatutzako profesionali ahalordeak emateko eta kentzeko eskumena izan dezan.

2. Presidenteari baimena ematea egokitzen dituen elkarrizketak eta negoziazioak abiatzeko CENekin, helburu hartuta lortutako akordioak formalizatu ahal izatea, betiere formalizazioaren aurretik administrazio-kontseiluko kideei akordioen berri eman ondoren.

2024ko urriaren 25a

Presidente jaunak CENekin sinatu beharreko akordioaren edukiaren berri eman du; akordioa CENeko administrazio-kontseiluak onartu du dagoeneko, eta orain bertako batzar nagusiak berretsi behar du. Akordioa sinatzeko ezarritako eguna 2024ko azaroaren 15a da.

Nafarroako Kontuen Ganberako kontsiderazioak jarraituz —2022ko abenduko txostenean jasota daude, pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat norbera babesteko ekipamenduak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako akordioarekin lotuta daude, eta lankidetzak-akordio horretako partaide guztiak jotzen ditu bertako hutsuneen erantzukide—, bildutako guztiek, aho batez, honako AKORDIOA hartu dute:

1. Onartzea formalizatzea Nafarroako Enpresaburuen Elkargoarekin (CEN) lortutako akordioa, presidente jaunak azaldutako terminoak eta baldintzak aintzat hartuta.

2. Ahalduntzea Mikel Irujo Amezaga presidentea akordioa formaliza dezan, Sozietatearen ize-nean eta hura ordezkatzuz.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

11-25/PES-00141. Galdera, Burlatako Hilarión Eslava HLHIPn haur-hezkuntzako lehen zikloa ezartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Burlatako Hilarión Eslava HLHIPn haur-hezkuntzako lehen zikloa ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 28ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak egindako 11-25-PES 00141 idatzizko eskaerari erantzunez, Hezkuntzako sailburua naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut:

Hilarión Eslava haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoan martxan jarritako Haur Hezkuntzako lehen zikloa ikastetxeko zuzendaritza-taldeak kudeatuko du.

Haur Hezkuntzako lehen zikloa osatuko duten unitateak aintzat hartuko dira zentroari dagozkion

esleipenetan, bai unitate kopuruari dagokionez bai zuzendaritza-taldeari dagokionez.

Haur Hezkuntzako lehen zikloan matrikulatutako haurrak ikastetxeko orientatzaileek artatuko dituzte, gainontzeko haur guztiak bezalaxe. Haur Hezkuntzako lehen zikloko unitateak aintzat hartuko dira ikastetxeko orientatzaileen ordu-zuzkiduran.

Arreta espezializatuko profesionalek ez dituzte ardura gehiago hartu beharko Haur Hezkuntzako lehen zikloaren ezarpenaren ondorioz.

Hilarión Eslava ikastetxeko Haur Hezkuntzako lehen zikloa aipatu zikloari dagokion araudiak erregulatuko du, bai onarpenari dagokionez bai egutegiari eta ordutegiari dagokienez ere. Edozein kasutan, Hilarión Eslava ikastetxeko zuzendaritza-taldeak definitu beharreko auzia da, aintzat hartuta ikastetxe publikoetan 2 urteko ikasgelak ezartzeko proiektu pilotuaren ebaluazioak utzitako emaitzak.

Haur Hezkuntzako lehen zikloak gaur egun Egunsenti haur-eskolako hurrek erabiltzen dituzten espazioak erabiliko ditu, erabat egokituta daudenak 28/2007 Foru Dekretuak ezarritako baldintzetara. Zuzendaritza-taldea izanen da ikastetxean

eskuragarri dauden espazioen erabilera zehaztuko duena.

Hezitzaileak bajaran daudenean, ordezkapenak dagokion hezkuntzako langileek egingen dituzte.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko edo Lehen Hezkuntzako eskolarik gabeko egunetan, guardiak egitea beharrezko den kasuetan, ikastetxeko hezkuntza-langileek egingen dituzte.

Ikastetxean dauden espazioek bete egiten dituzte 28/2007 Foru Dekretuak Haur Hezkuntzako lehen zikloarekin lotuta ezarritako baldintzak. Hala ere, aurreikusita dago 2025eko udan zehar hobekuntzako zenbait lan egitea.

Haur Hezkuntzako lehen zikloko jantokia Hezkuntza Departamentuak kudeatuko du. Jantokiko tarifak Haur Hezkuntzako lehen zikloari dagozkionak izanen dira.

Haur Hezkuntzako lehen zikloko hurrei hezkuntza-arreta zuzena ematen dieten profesionalek Haur Hezkuntzako irakasle titulua edo Haur Hezkuntzako goi mailako teknikariaren titulua izan beharko dute.

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00142. Galdera, enpresetako berdintasuneko agentearen figuraren profilari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak enpresetako berdintasuneko agentearen figuraren profilari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 28ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 11-25/PES-00142 informazio-eskaera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarro-

ako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Iragarritako Berdintasuneko agentearen figuraren profilari buruzko informazio osoa jaso nahi dut, definizioa zer irizpidetan oinarritzen den eta zer organok hartzen duen, betekizunak, eginkizunak, agenteak izendatzeko sistema, jardura noiz has- ten den eta horri buruzko beste edozein xehetasun.

Agertoki normatiboa:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragin- garrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organiko- aren 45. artikulua honakoa ezartzen du: "Enpre- sek lan-esparruan tratu- eta aukera-berdintasuna errespetatzeko betebeharra dute, eta, helburu horrekin, neurriak hartu beharko dituzte emaku-

meen eta gizonen artean lan-izaerako edozein bereizkeria mota saihesteko; halako neurriak negoziatu beharko dituzte, eta, hala denean, akordatu, langileen lege-ordezkariekin, lan-legerian ezarritakoaren arabera”.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 45. artikulua honakoa ezartzen du: “Enpresa eta lan arloko eskumena duen departamentuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketak sustatuko ditu enpresa eta antolakundeetan, eta berdintasun neurrien eta planen jarraipena eta kontrola egiten ditu”. Hala ere, 45. artikuluko 1. apartatuko a) hizkiak honakoa jasotzen du: “Nafarroako Gobernuak sustatuko du berdintasun neurriak eta planak egin eta ezartzea indarreko araudiak horretara behartzen ez dituen enpresa eta antolakundeetan, eta laguntza eta aholkularitza emanen die horiek prestatzeko”. Eta 45. artikuluko 1. apartatuko b) hizkiak honakoa: “Enpresa eta lan arloko eskumena duen departamentuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin elkarlanean, tresna batzuk garatuko ditu, Nafarroako enpresa eta antolakundeetan berdintasun printzipioa pixkanaka aplikatzen laguntzeko”. Izatez, Foru Legearen 45. artikulua eduki ia guzti-guztiak egiten die erreferentzia lan arloko eskumena duen Departamentuari (Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua) dagozkien lege aginduei, helburu dutenak berdintasuna bermatzea edo, gutxienez, aurrerapausoak ematea enpresetan eta antolakundeetan berdintasun neurriak eta planak eginez eta ezarriz, baita indarreko araudiak horretara behartzen ez dituenen ere. Horregatik, Departamentuak laguntza eta aholkularitza emanen die neurriak eta planak prestatzeko. Are, aipatu 45. artikulua 2. apartatua jasotzen du Nafarroako Gobernuak honakoa sustatuko dituela lan harremanetarako hiruko organoaren bidez: berdintasun arloko aurrerapausoak, negoziazio kolektiboan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta bermatzeko klausulak jasotzea, eragile ekonomiko eta sozialak prestatzea genero-ikuspegia negoziazio kolektiboan sar dezaten, emakumeek hitzarmenak egiteko lanetan parte-hartzea eta abar.

Estatuko eta Foru Komunitateko aipatu araudietako bi artikulua aintzat hartuta, foru administrazioa derrigorputa dago Nafarroan emakume eta gizon langileen arteko benetako berdintasuna lortzera bideratutako beharrezko neurriak sustatzera. Eta, hain justu, elkarrizketa sozialaren bitartez lortzen da politika publiko parte-hartzaile, eraginkor eta koordinatuak diseinatzea, Nafarroako Gobernuaren barruan zein kanpoan.

Soldata arrakala emakumeek lan merkatuan sartzean jasaten duten hasierako diskriminazioaren ondorioetako bat da, baina ez bakarria, berdintasun ezak bestelako inplikazioak ere baititu, enpresa barruko sustapenari, prestakuntzara sarbideari edo segregazio horizontalari eta bertikalari eragiten diotenak besteak beste. Horregatik, berdintasun planak funtsezko tresna dira lan arloko desberdintasunak ezabatzeko, langileen eta enpresaburuaren arteko negoziazioaren fruitu baitira. Hori bai, berdintasun planen arrakastaren gakoa paradigma sozialaren aldaketan dago, eta, horretarako, ezinbestekoa da etenik gabeko lan iraunkorra, bereziki informazioaren eta prestakuntza teknikoaren eta espezializatuaren hedapenean.

Bestalde, urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua dago, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituena, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotako erregulazioa garatzen eta osatzen duena. Bada, beste hainbat alderdiren artean, aipatu Errege Dekretuak berdintasun planak langileen legeko ordezkariarekin negoziatzeko prozedura ezartzen du. Negoziazioa aurrera eramateko, derrigorrezkoa da negoziazio-batzorde bat eratzea, enpresaren ordezkariak eta langileen ordezkariak (enpresa-batzordeko kideak, langileen delegatuak eta beste) osatuko dutena.

Honako hau ere badio 901/2020 Errege Dekretuaren 5.3. artikulua:

“Legezko ordezkariarik ez den enpresetan (...) negoziazio-batzorde bat sortuko da. Batzorde hori osatuko dute, batetik, enpresaren ordezkariak, eta, bestetik, langileen ordezkariak. Langileen ordezkariak osatuko dute ordezkariak handiena duten sindikatuek, tartean enpresaren sektorean ordezkariak handiena duten eta aplikatzen den hitzarmen kolektiboaren negoziazio-batzordean parte hartzeko legitiimitasuna duten sindikatuek. Negoziazio-batzordeak gehienez sei kide izanen ditu alderdi bakoitzeko. Sindikatuen ordezkariak sindikatu bakoitzak sektorean duen ordezkariaren proportzioa aintzat hartuta osatuko da, betiere legitiimitatutako sindikatu guztien partaidetza bermatuz. Hori bai, sindikatuen ordezkariak behar bezala osatuta egonen da enpresak egindako deialdiari hamar eguneko epean erantzun dion erakundeak edo erakundeek osatzen badute”.

Berdintasun agentearen figuraren garapena:

2022ko martxoaren 7tik 50 langile baino gehiagoko enpresa guztiek berdintasun plana eginda izan behar dute, edo, gutxienez, plana egiteko prozesua abian izan behar dute negoziazio-ba-

tzordearen sorrerarekin. Hala ere, 2025ean dagoeneko ondo sartuta gauden honetan, errealitatea bestelakoa da: Nafarroan derrigortuta dauden enpresen % 60k soilik erregistratu dute berdintasun plana Akordioen eta Laneko Hitzarmen Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan. Arrazoiak askotarikoak dira: legezko ordezkariarik ez duten derrigortutako enpresetako batzuek legitimatutako sindikatuetera jo dute negoziazio-batzordearen sorrera eskatzeko, baina ez dute erantzunik jaso edo ez dute batzordea sortzerik izan horrela egiteko erantzukizuna duten agenteen bitarteko faltagatik. Era berean, bada bestelako arazo bat ere: legezko ordezkariak den kasuetan ere, langileen delegatuek eta enpresa-batzordeetako kideek ez dute sarri berdintasun planak negoziatzeko adina berdintasun arloko prestakuntza teknikorik. Horrenbestez, euren erreferentziatzko sindikatuen laguntza teknikoa eta aholkularitza jaso beharra dute. Negoziazioei ekin behar dieten enpresa askotan ere antzeko egoera ematen da, derrigortutako enpresa gehien-gehienetan enpresak ez baitu berdintasun teknikalirik, eta, horrenbestez, laguntza edo aholkularitza espezializatua jaso beharra izaten du, sarri enpresaburuen elkarrekin partetik.

Zuzendu beharreko egoera horri aurre egiteko asmoz, Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren kideek Nafarroako Enplegu Planean (2025-2028) zenbait neurri sartzea adostu zuten, batetik, Nafarroako enpresetan desberdintasuna oro har murriztea bultzatzeko, eta, bestetik, berdintasun planen negoziazio espezifikoak bultzatzeko. Enplegu Plana elkarrizketa sozialaren eskutik hiruko organoaren bidez hitzartuta, foru administrazioak, enpresaburuen elkarrekin eta erakunde sozialek berdintasunaren aldeko konpromisoa agertu zuten, bai eta lan merkatuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko nahia ere. Adostutako neurrien artean dago berdintasun agentearen figura sortzea, bai eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentutik aipatu figuraren ezarpena laguntzeko akordioa ere, zehazki, Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

Berdintasun agentearen figuraren definizioa Nafarroako Gobernuaren eta eragile ekonomikoaren eta sozialen arteko akordioaren fruitu da, eta helburu du Nafarroan % 10eko edo gehiagoko ordezkariak duten sindikatuak eskaintzea berdintasun arloan kualifikatutako teknikariak kontratatzeke baliabide ekonomikoak. Hau da, sindikatu esanguratsuak indartu nahi dira, berdintasun planak negoziatzeko legitimatuta daudenak 901/2020 Errege Dekretuaren 5.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Horiek horrela, laguntza deialdi honen bitartez, Nafarroako Foru Komunitatean eta bertako lan sektoreetan esanguratsuak diren sindikatuak baliabideak eskuratzen ahalko dituzte aipatu funtzioak beteko dituzten pertsonak euren irizpideen arabera kontratatzeke, edo, hala bada, gogokio, pertsonon indarreko kontratuak finantzatzeko ahalko dituzte, betiere aurretik deskribatu ditugun baldintzak betetzen badira, enpresetan genero-ikuspegiaren integrazioa erraztuz, Nafarroan berdintasun planen negoziazioak sustatuz, desberdintasunen eta genero arrakalen murriztapena sustatuz, eta, azken batean, lan arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrerapausoak emanez (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 45. artikulua). Dirulaguntza emateko erabakigarria da erakundeok Nafarroan presentzia izatea, ordezkagarritasun terminoetan neurtuko dena. Hain justu, horixe da laguntza emateko erabiliko den irizpidea: sindikatuak Nafarroan duen ordezkagarritasuna.

Deialdiak onuradun diren sindikatuak berdintasun agentearen figura garatzeko egiten dituzten jarduketak lagunduko ditu diruz, zehazki, 2025eko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean egiten direnak. Jarduketok Nafarroako enpresetan sindikatuen jardueraren bitartez genero berdintasuna sustatzera zuzenduko dira, eta, horretarako, aintzat hartuko da zer funtzio eta eskudantzia dagozkien Espainiako laneko harremanen esparru normatiboan. Berdintasun Plan baten negoziazioak hemezortzi hilabeteko batezbesteko iraupena du, enpresa bakoitzaren tamainaren eta konplexutasunaren arabera desberdintasun nabarmenak izan badaitezke ere. Hala ere, dirulaguntzak ez du helburu eskusibotzat negoziazio-batzordeetan parte hartzen duten sindikatuak baliabideak eskaintzea, baizik eta lortu nahi du berdintasun agentearen figura baliagarri izatea planen negoziazioa sustatzeko eta berdintasun neurrien gainean akordioak lantzeko, tartean, baita derrigortuta ez dauden enpresetan ere. Horregatik hain justu, interesgarria da honako helburu hauek dituzten ekintzak diruz laguntzea: egoera, sentsibilizazio, aholkularitza eta informazio diagnostikoak egitea; berdintasun planetako neurriak negoziatzea araudiak derrigortutako enpresetan zein derrigortuta ez daudenetan; adierazleak sartzea eta euren ezarpenaren jarraipena egitea; eta, diruz lagundu daitezkeen arloaren barruan, genero desberdintasuna murrizten duten, hartzaile direnen lan baldintzak hobetzen dituzten eta enpresen lehiakortasuna areagotzen duten bestelako ekintza guztiak. Funtsezkoa da, gure Berdintasuneko Foru Legearen

45. artikulua adierazi bezala, desberdintasunak oro har murriztea.

Berdintasun agentearen figurak izanen dituen funtzioei dagokienez, laguntzen deialdian bertan ezartzen da onuradunak kontratatuta egon behar dutela eta zuzenean jardun behar dutela genero berdintasunaren arloko jarduketan exekuzioan, besteak beste: egoera, sentsibilizazio, aholkularitza eta informazio diagnostikoak egitea; berdintasun planetako neurriak negoziatzea araudiak derrigortutako enpresetan zein derrigortuta ez daudenetan; adierazleak sartzera eta euren ezarpenaren jarraipena egitea; eta, diruz lagundu daitekeen arloaren barruan, genero desberdintasuna murrizten duten, hartzaile direnen lan baldintzak hobetzen dituzten eta enpresen lehiakortasuna areagotzen duten bestelako ekintza guztiak. Edozein kasutan, ekintzak izan daitezke Nafarroan errotuta dauden enpresetan edo Nafarroa mailako sektoreetan berdintasun planen negoziazioan, lanketan, ezarpenean, jarraipenean eta ebaluzioan parte hartzen dutenei laguntza eta aholkularitza espezializatua emateko jarduketak, bane hartuta neurri espezifikoak gara-

tzea tratu-berdintasun eskubidea betetzeko eta ordainsarrietan emakumeen eta gizonen arteko diskriminaziorik ez izateko (ordainsarien erregistroa, ordainsarien auditoretza, lanpostuen balorazioa eta beste).

Eskatutako profilari dagokionez, berdintasun arloan espezializatutako teknikariek hitz egiten ari garenez, gutxienez 120 orduko prestakuntza izan behar dute emakumeen eta gizonen berdintasunean; prestakuntzak erakunde publikoek, unibertsitate publikoek edo unibertsitate pribatuak emandakoa izan behar du. Aipatutako baldintza Zuzendaritza Nagusiak dituen gainontzeko laguntza deialdietan ere jasota dago.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean

Eskubide sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00143. Galdera, “Baluarte” Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioaren fatxadan olanak jartzea baimentzeko prozedurari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak “Baluarte” Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioaren fatxadan olanak jartzea baimentzeko prozedurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 28ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak Baluarte Nafarroako Batzar Jauregia eta Auditoriuma eraikinaren fatxadan olanak jartzea baimentzeko prozedurari ote dagoen jakiteko egindako 11-25/PES-00143 informazio-eskaerarekin lotuta, honakoa

jakinarazten dut Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik:

Ez dago inolako prozedurarik idatzita Baluarte Nafarroako Batzar Jauregia eta Auditoriuma eraikinaren fatxadan olanak jartzearekin lotuta.

Hala ere, NICDO sozietate publikoaren Merkataritzako Departamentuak ezarritako protokolo estandar bat aplikatzen da, egin nahi den jardunaldia, bilera, kongresua edo erakusketa antolatzen duen erakundeari alde aurretik jakinarazten zaiona. Batzar Jauregiko eta Auditoriumeko areto bat edo zenbait alokatu dituen erakundeari, jakinarazten zaio antolatu duen ekitaldiaren promozioa egin dezakeela eraikinaren fatxadan eskuragarri dagoen espazioan.

Horrela egitea erabakitzen badu, ekitaldia antolatzen duenak ordaintzen ditu olana diseinatu, egiteko, jartzeko eta kentzeko gastuak. Olana ekitaldia baino 2 eta 4 egun lehenago artean jartzen da, normalean, ekitaldia egin behar den astean

bertan. Olana kentzeko lanak, berriz, ekitaldia egin osteko hurrengo egunean egin behar dira.

Beti da beharrezkoa Merkataritzako Departamentuaren aldez aurreko baimena jasotzea olana jartzeko, eta lehentasuna ematen zaie 2.000 eta 2.500 parte-hartzaile artean izaten dituzten kongresu handiei.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 11n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/POR-00144. Galdera, Valle de Odieta SCLk planteatutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Valle de Odieta SCLk planteatutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00144 idatzizko eskaera egin zuen, Valle de Odieta SCL sozietateak Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioaren gainean (19,119 milioi euroko kalte globalak konpontzea eskatu zuen). Bada, Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

1.- Nafarroako Kontseiluak 23/2023 ebazpena eman ondotik, Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu zuen Valle de Odieta SCL sozietateak planteatu zuen ondare-erantzukizuneko erreklamazioa dela-eta?

Nafarroako Gobernuak ez du inolako erabakirik hartu Nafarroako Kontseiluak 23/2023 ebazpena eman ondotik, oraindik ez baita ondare-erantzukizuneko espediente amaitu.

2.- Onartu al zen Kontseiluaren iritzia, zeinean 3.751.753 euroan balioetsi baitzen lortu gabeko irabazia dela-eta sortutako kaltea?

Aurreko erantzunean adierazi denez, ondare-erantzukizuneko espediente oraindik izapidetzen ari da, eta, beraz, oraindik ez da inolako behin betiko erabakirik hartu erreklamazioaren funtsaren inguruan.

Bestalde, jakinarazten dut Valle de Odieta SCL sozietateak 402/2023 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuela Administrazioarekiko Auzien Salan Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abuztuaren 10eko 792E/2023 Ebazpenaren aurka, hau da, 2021eko abenduaren 28an aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioaren ustezko ezespeneren aurka jarritako berraztertze hautazko errekurtsoa ezetsi zuen ebazpenaren aurka.

Prozedurak bere bidea jarraitu du, eta Valle de Odieta SCL sozietateak demanda bat aurkeztu du, aditu-txostenez lagunduta.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00145. Galdera, Artaxoako Ecofert Sansoain SL eta Tuterako Oleofat Trader taldearen plantetako lixibiatuen espedienteak zertan diren jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galde-ra, Artaxoako Ecofert Sansoain SL eta Tuterako Oleofat Trader taldearen plantetako lixibiatuen espedienteak zertan diren jakiteko, 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-000145 idatzizko galdera egin zuen, Artaxoako Ecofert Sansoain SL sozietatearen instalazioaren eta Tuterako Oleofat Trader taldeko instalazioetako lixibiatuen espedienteen egungo egoeraren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut:

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 23ko 55E/2024 Ebazpenaren bidez, Ecofert Sansoain SL sozietatearen aurkako 0002-SAMA-2024-000003 zehapen-prozedura abian jarri zen, ongarriak eta konposatu nitrogenatuak egin eta saltzeko Artaxoan duen bere titulartasuneko instalazioan izandako balizko irregulartasunak tarteko.

Bada, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren ekainaren 18ko 489E/2024 Ebazpenaren bidez, amaitutzat eman zen erreferentziazko zehapen-prozedura administratiboa, Ecofert Sansoain SL zigortuz bi arau-hausteren arduradun gisa, zehazki, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategineko 31.3.b) eta 31.4. artikuluetan tipifikatutakoak, hurrenez hurren. Aipatu legea abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen, eta bertako zehapen-araubidera lotzen da 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, Ingurumenen eragina duten jarduerak arautzen dituen. Ebazpena erantsi da, eta bertan ebazpena eragin zuten gertakarien kronologia jasota dago.

Azaldutako zehapenez gain, ebazpenean beste bi neurri mota ere ezarri zitzaizkion Ecofert Sansoain SL sozietateari:

– Batetik, behin-behineko neurriak ezarri zitzaizkion, ebazpena jakinaraztearekin bat indarrean jarri zirenak eta ebazpenak administrazio bidean irimotasuna lortu bitartean indarrean daudenak.

a) Neurri horietako bat Ecofert Sansoain SL sozietateak Artaxoako udal-mugartean duen instalazioa hondakinen sarrera berehala etetea izan zen.

b) Instalaziotik materialak irteerari dagokionez, soilik baimendutako hondakinen kudeatzaileetara eramateko irteten ahalko dira, betiere alde zurretik helmugako kudeatzaileak Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari jakinarazi eta honek oniritzia eman ondoren.

– Bestetik, ingurumena leheneratzeko neurriak eta neurri osagarriak daude, behin ebazpenak administrazio bidean lehen aipatutako irimotasuna lortzean aplikatuko direnak.

a) Bitartean, instalazioan ez da hondakinen sarrerarik onartuko.

b) Lixibiatuen baltsako edukia baimendutako kudeatzaile bati igorriko zaio, hondakinaren izaera aintzat hartuta tratatu dezan. Hondakina igorri aurretik, hori bai, helmugako kudeatzaileak Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari jakinarazi beharko dio eta honek oniritzia eman beharko du.

c) Behin azaldutako neurriak indarrean jarritakoan, instalazioan dagoen materiala prozesatu egingen da osorik erretiratu bitartean baimendutako kudeatzaileei egindako entregean bitartez.

– Hori bai, honako hau izan behar da aintzat entregean inguruan: “Soilik jarduketak amaitutakoan (...), dokumentu bidez justifikatutakoan eta Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko ikuskatzaileek ikuskatu eta oniritzia emandakoan, ekinen ahalko dio berriro titularrak instalazioan hondakinak sartzeari, eta, jakina, beti ingurumeneko baimen integratuan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuta” (xedapen zatia, 3.d apartatua).

– Ingurumeneko zuzendari nagusiaren urriaren 8ko 970E/2024 Ebazpenaren bidez, ezarritako behin-behineko neurriak eta neurri zuzentzaileak aldatu ziren; zehazki, merkaturatu eta erabilera agronomikoa zer material loteri emanen ahal zaion zehaztu zen, betiere alde aurretik enpresak amaitutako produktu loteen kontroleko analisiak eginda Ongarriei buruzko uztailaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuaren 14. artikuluan ezarri bezala. Gainontzeko neurriak bere horretan mantendu ziren.

– Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 19ko 434E/2024 Foru Aginduaren bidez (2024ko abenduaren 29an jakinarazi zen), ezetsi egin zen Ecofert Sansoain SL sozietateak Ingurumeneko zuzendari nagusiaren urriaren ekainaren 18ko 489E/2024 Ebazpenaren bidez jarritako gora jotzeko errekurtoa, eta, ondorioz, aipatu ebazpena irmo bilakatu zen administrazio bidean.

– Ecofert Sansoain SL sozietateak dokumentazioa aurkeztu zuen 2025eko otsailaren 5ean eta 20an ezarritako neurriak betetzen ari zela frogatzeko, zehazki, instalazioan zegoen bioegonkortutako materialaren eta baimenik gabe hartutako hondakinekin kontaktuan egon izana posible zen baltsako likidoaren kudeaketarekin lotuta. Aurretik bestelako dokumentazioa ere aurkeztu zuen enpresak.

– Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak txosten bat egin zuen 2025eko martxoaren 6an, zehaztuz gutxieneko baldintzak betetzen zituela bioegonkortutako materialaren eta Ecofert Sansoain SL sozietatean baimenik gabe hartutako hondakinekin kontaktuan izandako likidoan jatorria zuen lixibiatuaren zatirik handienaren kudeaketak, eta, beraz, bete zirela Ingurumeneko zuzendari nagusiaren ekainaren 18ko 489 Ebazpenean ezarritako jarduketak. Hori horrela, instalazioa berriro irekitzeko bi baldintza jarri ziren: nahasketako nabea garbitzea eta titularrak instalazioaren ingurumeneko baimen integratuaren V. gehigarrian zehaztutako fidantza gordailu gisa ematea.

– Ondoren, 2025eko martxoaren 18an eginda-ko ikuskapen bisitan nahasketako nabea garbitu zela egiaztatu zen, jarritako baldintzetako bat betez.

– Horregatik guztiagatik, betetzat jotzen dira 0002-SAMA-2024-000003 zehapen-prozedurari amaiera eman zion Ingurumeneko zuzendari nagusiaren ekainaren 18ko 489E/2024 Ebazpenaren bidez ezarritako behin-behineko neurriak eta neurri zuzentzaileak –gerora Ingurumeneko zuzendari

nagusiaren urriaren 8ko 970E/2024 Ebazpenaren bidez aldatu ziren–.

Horiek horrela, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 20ko 177E/2025 Ebazpenaren bidez, baimendu egiten da berriro abian jartzea Ecofert Sansoain SL sozietateak ongariak eta konposatu nitrogenatuak egin eta saltzeko Artaxoan duen bere titulartasuneko instalazioan egiten duen jarduera, betiere honako neurri hauek betez gero:

- Aldez aurreko neurriak: Titularrak instalazioaren ingurumeneko baimen integratuaren V. gehigarrian zehaztutako fidantza gordailu gisa ematea.

- Neurri operatiboak: Lixibiatuen baltsaren edukiera ingurumeneko baimen integratutan zehaztutakoaren erdira murriztu denez, instalazioaren biltegitarte gaitasunaren erdia soilik erabili ahalko da eta hondakinak kudeatzeko gaitasuna urteko 38.000 tonara mugatuko da. Horrela izanen da instalazioak funtzionamenduko ohiko baldintzak berreskuratu arte, hau da, ingurumeneko baimen integratutan ezarritako baltsaren edukiera osoa berriro gaitu arte.

- Kontrol neurri gehigarriak:

- Aldez aurretik bidaltzea Ecofert Sansoain SL sozietatera hondakinak igorri nahi dituen ekoizle bakoitzarekin egindako tratamendu-kontratu bakoitza.

- Egunero bidaltzea instalazioan jasoko den hondakinen bidaia bakoitzaren identifikazio-dokumentua.

- Egunero bidaltzea instalaziotik irteten den hondakin bakoitzaren identifikazio-dokumentua.

- Egunero bidaltzea instalaziotik irteten den konpost edo produktu landu bakoitzaren albarana (edo antzeko beste agiri bat), gutxienez kopurua eta nora bidali den zehaztuz.

- Aldez aurreko neurriei dagokienez, txosten hau egin denerako dagoeneko jaso dira Zerbitzuan enpresak instalazio honetarako jarritako abalen jatorrizko dokumentuak, aurreko apartatuan ezarritako fidantza zehaztutako zenbatekoari aurre egiteko bestekoak direnak. Abalak Nafarroako Ogasunera igorri dira gordailu gisa.

- Horrez gain, honako hau ere nabarmendu beharra dago Artaxoako Ecofert Sansoain SL sozietatearen instalazioaren gainean:

- Ez du Oleofat SL sozietatearen hondakinik jaso 2023ko ekainetik.

- Ez du Gipuzkoako Ingurumen Gunetik (GIG-1) hondakinik jaso 2023ko azarotik.

• Ez du inolako hondakinik jaso 2024ko uztailetik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00146. Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitaleko medikuen datuen gaineko desadostasunei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Tuterako Reina Sofia ospitaleko medikuen datuen gaineko desadostasunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín andreak 11-25/PES-00146 informazio-eskaera egin zuen, idatziz erantzun zekion: “2024ko urtarrilean egindako informazio-eskaerari (PEI-00052) erantzunez, jakinarazi zitzaigun Tuterako Reina Sofia ospitalean fakultatiboan 194 plaza zeudela beteta (“hutsik” ez dauden plazak). 2024ko azaroran egindako informazio-eskaerari (PEI-00060) erantzunez, berriz, erantzun zitzaigun 203 zirela. Halere, Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzaileak martxoaren 7an egin zuen agerraldian adierazi zuen 185,4 fakultatibo daudela plantillan. Zeri zor zaio fakultatiboan kopuruari buruzko desadostasun hori?”. Bada, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Tuterako Osasun Barrutiko fakultatibo kopuruari buruzko desadostasunen gaineko galderari erantzunez, nabarmendu beharra dago data ezberdinetan eta informazio-eskaera ezberdinei

erantzunez emandako datuak direla. Are, emandako datu guztiak giza baliabideak kudeatzeko SAP plataformatik lortu badira ere, informazioa tratatzeko erabilitako modua ezberdina izan da:

Bai 2024ko urtarrilean (11-2024/PEI-00052) bai 2025eko urtarrilean (11-2025/PEI-00060) emandako erantzunetan, non hurrenez hurren 194 eta 203 plaza zeudela beteta jakinarazi zen, Reina Sofia ospitaleko plantilla organikoko betetako plaza guzti-guztiak hartu ziren aintzat, alde batera utzita zehaztutako data jakinean fakultatiboak lanaldia-zen zer ehunekorekin ari ziren lanean.

Jarraian, emandako barrutiko fakultatibo espezialista kopuruetan izandako aldeak azaltzen dira:

2024ko urtarrileko informazioan (11-2024/PEI-00052), batuketa egitean ez ziren aintzat hartu psikologo klinikoak, Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeko psikologoak eta odontologoak.

Aldiz, 2025eko urtarrileko informazioan (11-2025/PEI-00060) –ez 2024ko azarokoa zure eskaeran zehaztu bezala–, betetako plazak zenbatzeko orduan aintzat hartu dira psikologo klinikoak, Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeko psikologoak eta odontologoak.

Tuterako Osasun Barrutiko fakultatiboan plantilla 185,4 fakultatibokoa zela zehaztuz 2025eko martxoan emandako informazioaren harira, nabarmendu datu hori 2024an zehar Reina Sofia ospitalean lan egiten zuten espezialitate bakoitzeko plantillako profesionalen batezbestekoa eginda lortutako datua dela, betiere bakoitzak benetan egindako lanaldia aintzat hartuta.

Datu horretan, hala ere, ez daude sartuta Pediatriako 9,20 barrutiko fakultatibo espezialista, beste taula batean jasota daudenak; horrenbestez, profesionalok ere aintzat hartuz gero, plantilla-ko fakultatiboen urteko batezbestekoa 194,64koa litzateke.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00147. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak 11-25/PES-00147 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, N-121-A errepidea 35+300 eta 40+900 kilometro-puntuen artean 2+1 bide bihurtzeko proiektuaren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut:

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia lanean ari da N-121-A errepidea 35+300 eta 40+900 kilometro-puntuen artean 2+1 bide bihurtzeko proiektua eguneratzeko. Aurreikuspe-

nen arabera, egitasmoak fresatzeko 35.000 tona bide-zoru baino gehiago tratatzea jasoko du, bai eta ondoren bide-zoru geruza berrietan berrerabiltzea ere, bizi-ziklo osoan zeharreko ingurumen inpaktua murriztea lagunduko duten irtenbide jasangarriak aztertuz.

Hori guztia 2023ko apirilaren 4an argitaratutako Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioko 2/2023 Agindu Zirkularrera egokitzeke, zeinak bide-zoru geruzen eta zoladura bituminosoen berrerabilera berraztertzeke beharra ezartzen duen, helburu hartuta bidezoruetan egiten diren jarduketak “ekonomia zirkularraren” elementu bat gehiago bezala ulertzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00148. Galdera, autobian bidesariak jartzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak autobian bidesariak jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean inolako talderi atxikita ez dagoen María Teresa Nosti Izquierdo foru parlamentariak 11-25/PES-00148 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, autobian bidesariak ezartzeko erabakiaren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

1. Nafarroako Gobernuak zergatik jarriko ditu bidesariak A-1 autobian 2026tik aitzina?

Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeari buruzko uztailaren 1eko 23/2022 Foru Legean ezarritakoa eta 2023-2027 aldiko legegintzaldiko akordioa betetzeko.

2. Zer onura zehatz ekarriko dizkie neurriak nafarrei?

Gaitasun handiko zenbait bide kanona ordainaraziz kudeatzeak ahalbidetu egiten du inbertsioak egitea uztailaren 1eko 23/2022 Foru Legean jasotako gaitasun handiko bideak hobetzeko eta kontserbatzeko.

3. Zer eragin aurreikusten da izanen duela gure komunitateko trafikoa, ekonomian eta mugikortasunean?

Neurri honekin Europako zuzentarauekin bat egiten duen mugikortasun politika bat sustatzen da, eta bete egiten da errepide sarea zerbitzu publiko gisa kontserbatzeko eraginkorki kudeatzeko konpromisoa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00149. Galdera, Maristetan etxebizitzak eraikitzeari dagokionez Arrasate talde sustatzailearen arduradunekin egindako bilerei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Maristetan etxebizitzak eraikitzeari dagokionez Arrasate talde sustatzailearen arduradunekin egindako bilerei buruz egindako galderaren erantzuna,

Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak 11-25/PES-00149 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naitzen aldetik, honakoa jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

1. Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Departamentuan zenbat bilerak egin dira Arrasate Taldea promotorearen arduradunekin, maristetako etxebizitzak direla-eta?

– Lau.

2. Bilerak noiz egin dira?

– 2024ko apirilaren 17an, 2024ko urriaren 23an, 2025eko martxoaren 12an eta 2025ko martxoaren 24an.

3. Nortzuk egon dira bileretan?

– 2024ko apirilaren 17ko lehen bilerako parte-hartzaileak. Arrasate Taldearen ordezkari gisa: Pello Sologastoa, Asier Sologastoa eta Aitor Oyarzabal. Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiaren ordezkari gisa: Maite Arrondo Segovia, Etxebizitzako zuzendari nagusia; Javier Etayo Lezaun, Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria; Alejandra de la Fuente Lebantini, Laguntzen eta Plangintzen Ataleko burua; eta Diego González Martínez, Eraikuntza Ataleko burua.

– 2024ko urriaren 23ko bigarren bilerako parte-hartzaileak. Arrasate Taldearen ordezkari gisa: Pello Sologastoa, Asier Sologastoa, Aitor Oyarzabal eta Miguel Ángel Alonso proiektua egin duen arkitektoa. Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiaren ordezkari gisa: Elga Molina Roig, Etxebizitzako zuzendari nagusia; Javier Etayo Lezaun, Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria; Alejandra de la Fuente Lebantini, Laguntzen eta Plangintzen Ataleko burua; eta Diego González Martínez, Eraikuntza Ataleko burua.

– 2025eko martxoaren 12ko hirugarren bilera parte-hartzaileak. Arrasate Taldearen ordezkari gisa: Pello Sologastoa, Asier Sologastoa eta Fernando Martínez Chocarro. Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren ordezkari gisa: Begoña Alfaro, hirugarren lehendakariordea eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria; eta Guillermo Nagore, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kabineteburua.

– 2025eko martxoaren 24ko laugarren bilerako parte-hartzaileak. Arrasate Taldearen ordezkari gisa: Pello Sologastoa, Asier Sologastoa eta Fer-

nando Martínez Chocarro. Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren ordezkari gisa: Begoña Alfaro, hirugarren lehendakariordea eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria; eta Guillermo Nagore, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kabineteburua.

4. Arrasate Taldea promotoreak zer dokumentazio eman du?

– Lehendabiziko hiru bileretan Arrasate Taldeak ez zuen inolako dokumentaziorik eman. Laugarren bileran Arrasate Taldeak dokumentu bat eman zuen, hiru aurrekontu agertoki jasotzen dituen. Jasotako dokumentua berehala eman zitzaien adjudikaziodunei/kooperatibistei.

5. Etxebizitza babestuen behin betiko kalifikazioaz edo etxebizitza libreen bizigarritasun zedulaz hitz egin al da bileretan?

– Lehen bi bileretan ez zen aipatu auzietako bakar bat ere joratu. Hirugarren eta laugarren bileretan, lehendakariordeak Nafarroako Gobernuak azken kalifikazioak emateko bete behar duen lege-esparrua zein den azaldu zuen; zehaztu zuenez, eskatutako baldintza teknikoak betetzea bermatu behar du, bai eta prezioak betetzea ere aintzat hartuta dagokion moduluaren prezioa, aztertutako sustapenerako indarrean dagoena. Bilera bakar batean ere ez zen joratu bizigarritasun zedulen auzia.

6. Zer akordio lortu ziren planteatutako auzion inguruan?

– Ez zen planteatutako auzion inguruko akordiorik lortu.

7. Etxebizitza babestuak eraikitzea aurreikusiten den ikastetxe izandako eraikinaren jabetzaren auzia aztertu al zen bileretan?

– Lau bileretako bakar batean ere ez zen joratu eraikinaren jabetzaren auzia.

8. Arrasate Taldeak etxebizitza babestuak eraikitzeke alegatutako zailtasunak aintzat hartuta, Nafarroako Gobernuak ez duela promotorea erreskatatuko adierazi zuen Parlamentuan lehendakariordeak. Bileretan ideia hori bera transmititu zitzaion Arrasate Taldeari?

– Bileretan ez zen auzia aztertu.

9. Etxebizitza babestuak eraikitzeke eman litezkeen dirulaguntzez eta laguntzez hitz egin al zen?

– Hirugarren eta laugarren bileretan dirulaguntza hipotetikoen auzia aztertu zen, zehazki, Nafarroako Gobernuak energia-efizientziarekin lotuta

eta Iruñeko Udalak birgaitzearekin lotuta ematen dituen dirulaguntzen testuinguruan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025ko apirilaren 25ean

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria:
Begoña Alfaro García

11-25/PES-00150. Galdera, Cintruénigoko La Paz DBHIren eraikina handitzeari eta LHko ikasketak paratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Cintruénigoko La Paz DBHIren eraikina handitzeari eta LHko ikasketak paratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak egindako 111-25/PES-00150 idatzizko galderari erantzunez, honako hau jakinarazten dut Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik:

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Foru Komunitatean egiten den lanbide heziketako eskaintza aztertzen du, eguneratzeko eta identifikatutako eskaera potentzialera egokitzeko. Eskain-

tzaren azterketa eta egokitzapena egiteko, beharrezkoa da azpiegiturak hezkuntzako eskaintza berria ezartzea ahalbidetuko duten espazioak eskaintzea.

Bada, Hezkuntzako kontseilari gisa iragan otsailean La Paz DBHI handitzeko lanak ikustera egindako bisitan nabarmendu bezala, institutua handitzeko aukerarik onena institutuaren ondoan dauden lursailak baliatzea litzateke, helburu hartuta bertan hasiera batean oinarrizko lanbide heziketako zikloak eskaintzea. Ildo horretan, aintzat hartu behar da ziklo horiek direla ondoen bat egiten dutenak bai eskualdeko eskaera sozialarekin bai enpresen eskaerarekin. Edozein kasutan, handitze-lanok ezin dira institutuaren egungo lurzatian egin, oso espazio txikia eskaintzen baitu ikasle kopurua aintzat hartuta. Hori dela eta, udalari eskatu zaio aipatu lurzatiak erosi ditzala eta Hezkuntza Departamentuaren esku jarri.

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00151. Galdera, animaliak hartzeko zentroen lurralde- eta eskumen-planari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak animaliak hartzeko zentroen lurralde- eta eskumen-planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-25/PES-00151 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako informazio hau helarazten dizut egindako galdera-sortari erantzunez:

– Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak taxutu al du 19/2019 Foru Legean oinarritutako lurralde- eta eskumen-planik, foru legeak ezartzen dituen animalien harrera-zentroak jaso, proiektatu eta banatuko dituen?

– Hala ez baldin bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak abiarazi al ditu aurretiazko lanak (esaterako, datu estatistikoen bilketa), plan hori taxutzeko? Zertan da lurralde-planaren taxuketa? Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer epe darabil gogoa plana prest izateko?

– Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du urte anitzeko aurreikuspen ekonomikorik 19/2019 Foru legeak ezartzen dituen betekizunak garatu eta bete ahal izateko?

Lehenengoa. Lagun Egiteko Animaliak Nafarroan Babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legeak eskumenen banaketa ezartzen du lagun egiteko animalien babesaren eremuan; zehazki, alde batetik ezartzen du toki-erakundeei dagokiela euren udal-mugar-tean dauden abandonatutako edo galdutako animaliak jasotzea eta animalien harrera-zentroetan sartzea, eta, horretarako, animaliak jasotzeko zerbitzu iraunkor bat izan behar dutela, izan propioa, mankomunatua edo hitzartua; eta, bestetik, animalien harrera-

zentroak izan behar dituztela edo harrera-zerbitzua itundu behar dutela –19/2019 Foru Legearen 15.1 a) eta b) artikulua–.

Era berean, 19/2019 Foru Legearen 22.1 a) artikulua ezartzen duenez, toki-erakundeak dira abandonatutako edo desagertutako animaliak jaso, ostatu eta mantentzeko jarduerak gauzatzeko eskumena dutenak.

Ildo beretik, Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak 22.1 artikuluan ezartzen duenez, toki-erakundeak dira eskumena dutenak galdutako eta abandonatutako animaliak hartzeko eta ostatzeko animaliak babesteko zentroetan, eta, horretarako, zentro propioak edo itunpekoak izan behar dituzte (22.2 eta 22.3 artikulua).

Nafarroako Gobernuak dituen eskumeni dagokionez, berriz, 19/2019 Foru Legearen 22.2 artikuluan zehazten dira; aldiz, bertan ez da jasotzen harrera-zentroak izateko beharra.

Nafarroako Gobernuak, Lagun Egiteko Animalien Atalaren bitartez, 19/2019 Foru Legearen lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoa koordinatzeko, kontrolatzeko eta garatzeko organo gisa jokatzeko du.

Azaldutakotik ondorioztatu daitekeenez, toki-erakundeen eskumen eskusiboa da lagun egiteko animalia abandonatu edo galduak hartzeko eta harrera-zentroetan mantentzeko ardurak, arlo honetako aurreko arau erregulatzaileek jaso bezala (7/11994 Foru Legea eta 104/2010 Foru Agindua).

Nafarroako egoera, 19/2019 Foru Araua indarrean jarri aurretik, honako hau zen: abandonatutako animaliak hartzeko udal titulartasuneko bi zentro bakarrik zeuden foru-komunitate osoan, bat Iruñeko Udalaren titulartasuneko, eta, bestea, Erriberako Mankomunitatearen titulartasuneko, eta biek zuten %100eko okupazioa. Bi zentro horiez gain, Lagun Egiteko Animaliak Babesteko Zentroa ere mantentzen du Nafarroako Gobernuak, Osasun Departamentuak 1992an sortu zuena txakurrei eragiten dieten gaixotasunak kontrolpean izateko asmoz. Orduetik, aintzat hartuta udalen betebeharrak betetzeko udal titulartasuneko harrera-zentroen falta, Osasun Departamentuak sortutako zentroak aldi baterako zerbitzuak ematen jarraitu du ezinbestean.

Egun dauden zentroak etengabe beteta egoteak argi uzten duenez zentro gehiago sortzea beharrezkoa dela, Lagun Egiteko Animalien Atalak erabaki zuen azterketa-proposamen bat egitea Nafarroan lagun egiteko animalientzako zentro publikoen sare bat ezartzeko; azterketa-proposamena langile eta bitarteko propioak erabiliz egin zuen, eta, erantzun honekin batera, kopia bat erantsi dizut.

Egindako azterketa-proposamena ez da eskualde bakoitzean ezarri beharreko zentro espezifiko bakoitza nolakoa izan beharko litzatekeen azaltzen duen azterketa xehatu bat. Zentro-eredu baten proposamena da, gutxi gorabeherako inbertsio- eta mantentze-kostuak jasotzen dituen, aitzat hartuta udalek nahitaez eman behar dituzten zerbitzuak eta instalazioek bete behar dituzten baldintzak, betiere aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera (7/2023 Legea, 19/2019 Foru Legea eta 94/2022 Foru Dekretua).

Azterketak proposatzen du Nafarroako lurraldea osorik hartuko lukeen zentroen sare bat sortzea, ahalbidetzeko udal eskumenen kudeaketa era mankomunatuan egitea.

Datuak honako iturri hauen bidez lortu dira:

1. Egun dauden zentro publikoetako datuak: Lagun Egiteko Animalien Zentroen Erregistroa, eta erakunde titularrek eurek duten edukieraren gainean eta 2023an hartutako eta adoptatutako txakurren eta katuen gainean emandako datuak.

2. Nafarroako udalerrien tipologiari buruzko datuak: INEren biztanleria datuak.

3. Toki-erakundeek jasotako laguntzen gaineko datuak: gure iturri propioak.

4. Eman beharreko zerbitzuen proposamena: aintzat hartu dira egungo legeriaren arabera toki-erakundeek dituzten betebeharrak.

5. Funtzionamendu eta langileria gastuak: Animaliak Babesteko Nafarroako Gobernuaren Zentroaren datuak, 2024an bisitatutako Rivas-Vaciamadrid udalerriko zentroaren datuak, Majadahondako (Madril) Zentroaren datuak, Cadizko Badiako Udalen Batasuna, Zaragozako Udala –aipatu zentroetako lizitazio publikoen baldintza-agirietatik lortu dira datuak–, eta sektoreko hitzarmen kolektibo aplikagarria.

6. Eraikuntza gastuak: lagun egiteko animalien zentroen eraikuntza proiektu berrien datuak eta zentro publikoak eraikitzeke lizitazio publikoen datuak (Cadizko Badiako Udalen Batasuna eta Zaragozako Udala).

Azterketa hasierako proposamen bat besterik ez da, lagun egiteko animalien ohiko zentro bat sortzeko eta mantentzeko gastuak kalkulatzeko dituen; ondoren, proposamena eskualde bakoitzeko benetako beharretara egokitu behar da, eta, horretarako, tokian tokiko egoeraren diagnostikoa egin behar da.

Zentroak behar duen edukiera zehazteko erantzukizuna udal elkartuen da. Udal horiek beren beharren azterketa egin behar dute, tokian tokiko datu errealetan eta eguneratuetan oinarrituta. Egindako diagnostikoa aintzat hartuta, azterketa zentroak izan beharreko edukierara egokitu beharko da, eta, horrekin batera, baita inbertsio- eta mantentze-kostuak ere.

Lagun Egiteko Animalien Atalak egindako azterketak ezarpen- eta kudeaketa-kostuen gutxi gorabeherako aurreikuspena ematen du, eta Nafarroako Gobernuak toki-erakundeek dituzten eskumenak betetzen laguntzeko neurri gisa egiten da, baina helburua ez da inolaz ere ezarpen proiektua gauzatzea eta estali beharreko beharrak eta finantzaketa modua zehaztea.

Horrela jakinarazi zitzaion Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari azterketa egiten hasi baino lehen, 2024ko otsailean egindako bileran zehazki. Adostu zen bilera berri bat egitea landutako proposamena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak sortutako lantalde bati aurkezteko; lantaldean, azterketak aurreikusitako eskualde bakoitzeko ordezkari bat izatea ere erabaki zen (Iruña eta Iruñerria, Erdialdea, Estellerria, Erribera eta Iparraldea).

Azterketa 2024ko otsailaren 27an aurkeztu zen. Bileran adostu zen eskualde bakoitzak dituen benetako beharrak aztertzea egoeraren diagnostiko bat eginez, helburu hartuta inbertsioko eta mantentzeko kostuen aurreikuspenak zentroen benetako dimentsioak aintzat hartuta egokitzea.

Egindako azterketa Gizarte Zerbitzuetako Ministerioko Animalien Eskubideen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu zitzaion 2024ko martxoaren 19an, zentroak martxan jartzeko finantzaketa lortzeko asmoz.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren erantzuna, berriz, 2024ko maiatzaren 27an heldu zen. Bileran hartan, baina, ez zen eskualdeko egindako inolako diagnostikorik aurkeztu eta oraindik ere ez da aurkeztu.

Bigarrena. Urte anitzeko aurrekontuko partidak eta finantza nahikotasuna.

Aurrekontuko partidei dagokienez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua-

ren eskumen esparruan, urtero-urtero onartu dira aurrekontuak eta aurrekontuotan Lagun Egiteko Animalien Atalari dagozkien jarduketak aurreikusi dira, helburu dutenak sustatzea eta laguntzea toki-erakundeek bete ditzatela lagun egiteko animalien zentroak sortzearekin eta animalioek zentroetan mantentzearekin lotuta dituzten eskumenak.

Helburu horrekin, 2021etik laguntza-lerro bat sortu da bai lagun egiteko animalien harrera-zentroak sortzeko eta hobetzeko inbertsioetarako, bai eta abandonatutako animaliak eta katuen koloniak identifikatzeko, txertatzeko edo esterilizatzeko jarduketetarako. Laguntza publikoen deialdiak urterokoak dira, ekitaldi bakoitzeko gastuak finantzatzen baitira.

Dirulaguntzen partiden exekuzioari dagozkion datuak harrera-zentroak sortzeko 2024ko otsaila-

ren 2ko azterketa-proposamenean jasota daude. Aipatu azterketa Departamentu honen esku dago, eta ez dut inolako arazorik zuri bidaltzeko, betiere eskaera informazioa eskatzeko arauzko bideak zehazten dituen 15. artikulua arabera egiten baldin bada.

2025eko aurrekontuetan bi laguntza-lerro daude aurreikusita, aurreko urteetako helburu berdinekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00152. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta EIBZren kokapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-25/PES-00152. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta EIBZren kokapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak egindako 11-25/PES-00152 idatzizko galderari erantzunez, honako hau jakinarazten dut Hezkuntzako sailburua naizen aldetik:

Hezkuntza Departamentua 2002ko urtarrilaren 1etik ari da erabiltzen eraikina Zubiarteren egoitza gisa. Aurretik ikastetxe publiko gisa erabiltzen zen eraikina, baina lekuz aldatu zuten.

Uneotan, Hezkuntza Departamentua urratsak egiten ari da Zubiarte lekuz aldatzeko, baina horretarako beharrezkoa da partzela baten jabetzaren lagapena uneotan eraikina erabiltzen duten bi hezkuntza zentroak bertan birkokatzeko. Helburu horrekin, Hezkuntza Departamentua Burlatako eta Uharteko udalekin harremanetan izan da, Erripagaña auzoan zuzkidura erabilera izan den partzela baten lagapena lortzeko; uneotan, beharrezko kontratazio-izapideak hasteko administrazio-izapidearen zain gaude, dagokion urterokoetan nahikoa kreditu izatearen mende dagoena.

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean.

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00153. Galdera, zerbitzuburuak eta atalburuak izendatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak zerbitzuburuak eta atalburuak izendatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-25/PES-00153 galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak helarazitako informazioa oinarri hartuta, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

1.- Onetsi zenez geroztik gaur arte, zenbat atalburu edo bulegoburu izendatu dira 29/2017 Foru Dekretuan jasotzen den merezimendu-sistema baliatuta?

2019an 215 pertsona izendatu ziren merezimendu-lehiaketaren sistema baliatuta atalburu edo bulegoburu lanak egiteko.

2020an, berriz, pertsona bakarra izendatu zen merezimendu-lehiaketaren sistema baliatuta, zehazki, atalburu izateko.

2.- Zenbat bitarteko zerbitzuburu eta atalburu izendatu dira 2018tik gaur arte?

Atalburuen edo asimilatuen izendapenak 735 izan dira guztira. Bulegoburuen edo asimilatuen izendapenak 687 izan dira guztira.

Emandako datuak administrazio-egintzei dagozkie, eta, beraz, posible da burutza berean izendapen bat baino gehiago egon izana zehaztutako aldian.

3.- Zenbat zerbitzuburu eta atalburu daude guztira Foru Administrazioan?

Guztira 611 atalburu kargu daude uneotan beteta. Guztira 307 bulegoburu kargu daude uneotan beteta.

4.- Betetako zerbitzuburu eta atalburu karguetatik, zenbat izendatu dira merezimendu-lehiaketa bidez eta zenbat bete dira bitarteko izendapen bidez?

Egun dauden burutza guztietatik, 52 dira oraindik ere merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez izendatzen direnak.

5.- Zenbat atalburu dago Foru Administrazioan funtzionario bakar bat duena atalburutzari atxikirik?

6.- Atal horietan, atxikirik dagoen pertsona bakar hori al da atalburua?

Egun dauden 611 atalburuetatik, 71 dira atalburuaren plaza salbu, plantilla organikoko bestelako plazarik atxikita ez dutenak; horrenbestez, atalari atxikitako funtzionario bakarra da burutza betetzen duena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00154. Galdera, Nafarroako etxebizitza-jabeen kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nafarroako etxebizitza-jabeen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00154 idatzizko galdera egin zuen –Nafarroako Parlamentuko 202503004 irteera zenbakiarekin erregistratu zen 2025eko apirilaren 1ean–, Nafarroako etxejabe kopuruaren gaineko informazioa eskatuz. Bada, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Lortutako informazioa 2023koa da.

	JABETZA (% 100)	
	>=5 higiezin	>=10 higiezin
Pertsona fisikoak	2.069	149
Pertsona juridikoak (*)	701	330
	2.770	479

(*) Pertsona juridikoak honela sailka daitezke:

	JABETZA (% 100)	
	>=5 higiezin	>=10 higiezin
Jabeen erkidegoak jabetza horizontalaren araubidean	24	8
Erakunde eta kongregazio erlijiosoak	26	8
Toki-korporazioak, erakunde publikoak, Estatuko eta Foru Komunitateko administrazioetako organoak	96	45
Gainontzeko pertsona juridikoak	555	269
	701	330

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 5ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00155. Galdera, etxebizitzaren jabe diren pertsona fisiko eta juridikoen eta etxebizitzaren alokairuagatik errentak jasotzen dituztenen kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak etxebizitzaren jabe diren pertsona fisiko eta juridikoen eta etxebizitzaren alokairuagatik errentak jasotzen dituztenen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00155 idatzizko galdera egin zuen –Nafarroako Parlamentuko 202503017 irteera zenbakiarekin erregistratu zen 2025eko apirilaren 9an–, Nafarroako etxebizitzaren kopuruaren gaineko informazioa eskatuz. Bada, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

1. Zenbat pertsona fisiko eta zenbat pertsona juridiko dira, osorik edo zati batean, etxebizitzaren jabe gaur egun Nafarroan?

Emandako informazioa 2023koa da, azken urtea baita eskuragarri duguna pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren epeak amaituta.

	Nº propietarios con cualquier % de participación	Nº propietarios con 100% de participación	Nº propietarios con 50% de participación
Personas físicas	343.244	177.117	176.172
Personas jurídicas (*)	4.316	4.052	178
	347.560	181.169	176.350
(*)Las Personas jurídicas, pueden clasificarse de la siguiente manera:			
	Nº propietarios con cualquier % de participación	Nº propietarios con 100% de participación	Nº propietarios con 50% de participación
Comunidades propietarios en régimen de propiedad horizontal	380	364	-
Congregaciones e Instituciones religiosas	149	127	9
Corporaciones Locales, Organismos públicos, Órganos de la Administración del Estado y Comunidades. Autónomas.	383	379	7
Resto de tipos de personas jurídicas	3.404	3.182	162
	4.316	4.052	178

2. Zenbat pertsona fisikoek aitortu zituzten etxebizitzaren alokairu-errentetatik heldutako diru-sarrerak 2021etik 2024ra bitartean?

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga ez da bereizketarik egiten ohiko etxebizitzaren edo etxebizitza iraunkorren alokairuen eta turismoko alokairuen, denboraldiko alokairuen, logelaren alokairuen edo besteri alokatutako alokairuen artean;

horrenbestez, emandako datuak etxebizitzaren alokairutik diru-sarrerak lortu dituzten pertsona fisikoena dira, alokairu mota zehaztu gabe.

Hori dela eta, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga etxebizitzaren alokairutik diru-sarrerak aitortzen dituzten pertsona fisiko guztien datuak eman dira, bestelako inolako bereizketarik egin gabe.

Urtea	Aitorpen-egileen kopurua
2021	35.920
2022	38.194
2023	39.591

Ez da 2020ko daturik eman, urte horretako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren datuak ez baitira homogeenak hurrengo urteetan jasotako datuekin alderatuta. Horrenbestez, ez da posible informazioa higiezin motaren eta erabileraren arabera sailkatzea, urte horretako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren programan ez baitzen informazio hori jasotzeko lauki espezifikorik. 2021eko eta hurrengo urteetako datuei dagokienez, egindako deklarazioan etxebizitza-alokairuak eta etxebizitza-alokairuengatikoko diru-sarrerak positiboak aitortu zituzten aitortzaileenak dira.

3. Zenbat pertsona juridikok aitortu zituzten etxebizitzaren alokairu-errentetatik heldutako diru-sarrerak 2021etik 2024ra bitartean?

Ez da posible eskatutako informazioa ematea, sozietateen gaineko zergaren pertsona juridikoek alokairuaren zenbatekoa aitortzen baitute, baina zergaren laukietan ez baita zehazten alokatutako ondasunaren erabilera, ezta alokatu dena etxebizitza bat, industria-nabe bat merkataritza lokal bat, lursail bat edo beste edozein ondasun den.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez